

73

3 euro • 2002ko ABENDUA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

GAIA: ERAIKI DEZAGUN DENOK
EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIA
• ESKOLEN ARTEKO POSTA TRUKEA
• KLIK ETA HONEN ARRAKASTA •
IKAS PEDAGOGIA ZERBITZUA



ELKARRIZKETA

Luis Mari Zulaika

Kirola egiteko 30 arrazoi

ekin


BILDUMA



1 ♦ J. M. Irujo
Azken ordea Lizasoan

1 ♦ I. K. Irujo
Ahotz isilduaren bahiketa

2 ♦ F. M. Irujo
Dorretze zaharreko misterioa



ibaizabal



gaia

ERAIKI DEZAGUN DENOK EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIA

Mezu horrekin datorkizu Sortzen-Ikasbatuaz elkar-
tea. Ez daude konforme egungo eskola publikoarekin
eta aldatzeko urratsak emateko asmoa dute. Egungo
egpera aldatu nahi duen orori egiten diote parte
hartzeko deia.



elkarrizketa

LUIS MARI ZULAIKA

Kirola egiteko 30 arazoi liburua argitaratu du
Maite Mu oca sendagilearekin batera eta hori
izan dugu elkarrizketaren abiapuntu.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ERAIKI DEZAGUN DENOK EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIA

16 elkarrizketa

LUIS MARI ZULAIKA

24 esperientziak

Eskolen arteko posta trukea

Jose Luis Bardón

28 teknologia berriak

Klik programa eta honen arrakasta eskolako hezkuntzan

Alejandra Bosco

33 berriak

40 eskolako zertzeladak historian


IKAS, kultur elkartetik euskal pedagogia zerbitzura

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua; Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estarba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Inanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAM:Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Haurrak ariketa fisikoa egiten (Hik Hasi).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2002/ XI/21 . Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.
hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.



hik hasik

euskal hezitzaileen

harpidetza

behar du

30 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure parte-hartzea
ezinbestekoa zaigu

harpide zaitez!



hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale
eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

30 euro

Hego Euskal Herria
5.000 pezeta
Ipar Euskal Herria
200 libera

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54

editoriala abendua

Hezkuntza gizartearen zerbitzura egotea guztion ESKUBIDEA da



Giza aberastasuna-
ren ikuspuntutik, hiz-
kuntza eta kultura
guztiak maila bere-
koak dira eta denek
izan behar dute
garatzeko eskubide
berdina

Esparru ezberdinetan hezkuntzari buruz hainbeste hitz egiten da, hainbeste lege, dekretu, agindu, arau eta abar kaleratzen da, hezkuntza munduan lanean ari garenon artean kezka, zalantza eta noraeza sortzen dela.

Askotan, egiten ari garena bere neurrian baloratu ahalizateko, atzerriko erreferentziak falta zaizkigu. Eta ohartzerako, interes partikularrak eta politikoak gizartearen eta hezkuntzaren eskubideen aurretik jartzen dira.

Mundu mailan, badago hainbat erakunde, nazioarteko erakunde direnak, eskubideen ikuspuntutik hausnarketa serio, sakon eta adostuetara iritsitakoak. Gu guztiontzat ezinbesteko erreferente izateko modukoak direnak dira.

Esate baterako, 1948an onartutako *Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalak*, besteen artean, ondorengo eskubideak jasotzen ditu:

- Pertsona orok arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edota beste ezaugarriengatik baztertua ez izateko eskubidea du.

- Pertsona guztiek hezkuntzarako eskubidea dute. Eta oinarritzko hezkuntzak, gutxienez, doakoa izan behar du.

- Gurasoek euren seme-alabei eskainiko zaien hezkuntza ereduak aukeratzeko eskubidea dute.

UNESCOren babespean, 1960. urtean *Irakaskuntza Mailako Gutxiespenen Aurkako Hitzarmena* lortu zen. Bertan, gutxiengoei ikastetxe propioak sortzeko eskubidea aitortzeaz gain, irakaskuntza be-

raien hizkuntzan jasotzeko eskubidea onartzen zaie.

1989ko *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren* arabera, haurrei bere hizkuntzarekiko eta bere kulturarekiko errespetua irakatsi behar zaie.

Herrien Eskubideen Aitorpen Unibertsalak 1976. urtean zera jasotzen du:

- Herri orok bere nortasun nazionala izateko eskubidea du.

- Herri guztiek euren hizkuntzan hitz egiteko eta euren kultura garatzeko eskubidea dute.

- Herri denek atzerriko kultura berriei ez inposatzeko eskubidea dute.

Eskubideen aitorpenak jasota daude. Galdera da, Euskal Herriari ba al dagozkio eskubide hauek? Guk ez dugu zalantzarik: BAI.

kronika

Donibane Garazin eraikitze lanari ekingo diote urte berrian Garaziko ikastolak egoitza berri izan dezan. Sortu zenetik ikasle kopurua handitzen joan izan den heinean lekuz aldatu behar izan dute, behin baino gehiagotan; Donibane, Uharte, Lasa... Horregatik, kokapen egonkorrago baten finantzamendua lortzeko negoziaketetan ibili dira oraindano. Urte luzeetan agintari frantsesekin izandako elkarriketak alferrikakoak suertatu dira, Frantziako estatuak laguntzarik batere ez diela emango adierazi baitie. Egoera horrela, Seaskak hartu du bere gain lanen ardura. Urtarrilean hasteko diren eraikuntza lanak Gasteizko gobernuak, EAJ-EAren Udalbiltzak eta Seaska berak, Herri Urratsari eta egingo duen kanpainari esker, osatuko dute beharrezko den finantzaketa, laster ikasgela berriak erabiltzerik izango duteneko itxaropenez.



Nafarroako legeztatu gabeko ikastolen finantzaketa gelako egingo da

Nafarroako zonalde ez-euskaldunetan dauden legeztatu gabeko ikastolen finantzaketa gelako egingo da, eta ez haur bakoitzeko. Hala erabaki du Parlamentuak eta horrela, ekainaren 27an hartutako erabakia atzera bota dute. Izan ere, Pedro Pegenatek zuzentzen duen Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusiak diru laguntzak banatzeko irizpidea aldatu egin zuen, eta ondorioz zonalde horretako bost ikastolek 643.000 euro gutxiago jaso zituzten. Ekainaren 27an aurreko diru laguntzen sistemara itzultzea proposatu zuen EA-EAJk, baina asmoa ez zen aurrera atera IUN-NEBren hutsegite bategatik. Orain, hutsegite hori zuzendu dute eta berriz 2000. urtera arteko finantzaketa jasoko dute ikastola horiek.

Aipatu lau ikastolak Tuterako Argia, Bianako Erentzun, Irunberriko Arangoiti, Lodosako Muskaria eta Sartagudako Deikaztelu (orain azken biek bat egin eta Ibaialde ikastola osatzen dute) dira. 1991. urteaz geroztik gelako subentziazioa erabaki zen, eskola unitarioetan bezala. Gehienak txikiak ziren gelako ikasle kopuruei zegokienez eta ez ziren iristen gutxieneko haur kopurura -hamazortzi ikasle Haur eta Lehen Hezkuntzan-.

Iazko aurrekontuekin, ordea, aldaketa ailegatu zen. Pedro Pegenatek iragarri zuen irailetik aurrera soilik gutxieneko kopurura iristen ziren gelek jasoko zutela moduluaren diru kopuru osoa, eta gainontzekoetan haurren proportzioan gutxituko zela laguntza.

Banaketa berri horren ondorioz iaz 163.000 euro gutxiago jaso zituzten eta aurten 480.000 euro gutxiago. 2000. urtean 1.370.000 eurokoa izan zen ikastola horiek jaso zuten diru laguntza. Egoera horrek kinka larrian utzi ditu ikastolak, oinarritzko gastuei aurre egiteko zailtasunekin.

Nolanahi ere, ikastola horien diru laguntzen gaiari berriz heltzekotan gelditu ziren Parlamentuan. Izan ere, Jesus Laguna Hezkuntza kontseilariak ikastola horien "pribilegioak" aipatu zituen, beste ikastetxeentzat bidegabeba dela esanez. Legeztatzea ez zitzaizela interesatzen ere aipatu zuen.

Pedagogi federik gabeko irakasle-gorputz bat, arimarik gabeko gorputz bat da

Emile Durkheim



Sarean Elkartek haur eskolen mapa diseinatzeari ekingo dio

Sarean elkartek XIII. Topaketen ondotik haureskolen mapa egiten hasiko direla adierazi du. Hezkuntza Saila “*planifikazio argi eta ganorazko bat egiten ez dela ari*” ondorioztatu ondoren hartu du erabaki hori, eta hezkuntza publikoko beste erakundeekin batera ekingo dio gizartearen eskaera erantzuteari.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan kezka handia dago gai horren inguruan. Dekretuaren behin betiko onarpena eta argitaratzea atzeratzen ari da eta horri lotutako Memoria Ekonomikoaren berri ere ez da ematen. Bien bitartean, sare pribatuko ikastetxe asko ziklo hau eskaintzeko beharrezkoa den baimena eskuratzen ari dira, eta horrek eragina izango du etorkizuneko eskola mapan.

Titulartasunari dagokionez, Hezkuntza Sailaren asmoa da partzuergoaren bidea jorratzea, eta Sareaneko ki-deek uste dute horrek sektorearen privatizazioa erraztu dezakeela. Bestalde, nahiz eta 0-3 etapari izaera hezitzailea onartu, beste adinei onartzen zaien dokotasunik ez zaio aitortzen.

Sareanek egin asmo duen eskola maparen diseinuak hiru ezaugarri nagusi hartuko ditu aintzat. Hasteko, titularitate publikoa izango duen eskaintza osoak Hezkuntza Sailaren menpe egon behar duela defendatzen dute; udalek, Aldundiek eta abar finantza eta kudea dezakete, baina titulartasunak ez du beraiena izan behar. Bigarrenik, eskola publikoaren eskaintzak osotasunean finantzatu egin behar duela eskatzen dute. Eta hirugarrenik, eskaintza publikoa hezkuntza barruti guztietara hedatu behar dela diote, euskal gizarte osoak Euskal Eskola Publikoan sartzeko aukera izan dezan.

Bien bitartean, Nafarroako Ongizaterako Institutuak 0-3 zikloko zentroak jartzeko ebazpena plazaratu du. Bertan, haur bakoitzaren kostua 3.125 euro ingurukoa dela aurreikusten da, eta diru hori lortu ahal izateko langileen kostuak murriztuko dituzte. Gobernua harror dabil ekimen aitzindaria dela esanez, baina langileek eta hainbat adituk ez dute uste bide ona eta egokia denik, eta onena porrot egitea dela uste dute.

Euskal Herriak Bere Eskola kanpainan aldarrikatu zen Euskal Herriak bere eskola izateko zuen beharra, eskubidea eta nahia. Ondotik sortu zen Euskal Herria Bere Eskola ekimenak prozesu berri bat jarri du martxan Euskal Herriak behar duen eskola eredia diseinatzen hasteko. Prozesu hori Donostian bildutako hamalau herrietako ordezkariak (Iruñea, Durango, Zarautz, Gasteiz, Hernani, Leitza...) hasi zuten, lehen pausoa herri bakoitzean dituzten beharrak eta gabeziak identifikatzea baita. Gerorago tokian tokiko lehentasunezko ildoak zehaztuko dira. Hauekin guztiekin aldarrikapen taula bat osatuko da eta mintegi nazionalak antolatuko dira, iritzi guztiak jaso eta adostasunezko dokumentu batera iristeko. Ibilbide horretarako Euskal Herriko ikasle, irakasle, guraso eta herritar guztiei zabaltzen zaie deia. Madrilen eta Parisen erabakitzen dituzten legeak ere salatu zituzten eta horiei aurre egiteko geure legea behar dugula adierazi, Xede horiekin bada, urratsak ematen hasiko dira ikasturtean zehar.

Eraiki dezagun denok

Euskal Eskola Publiko Berria





Indarberiturik eta proposamen berriekin irten da Sortzen-Ikasbatuaz II. Batzar Nagusiaren ondoren. Euskal Eskola Publiko Berria errealitate bihurturik ikusteko gogoak bultzata, ekimen zehatzak proposatzen dituzte, besteak beste, inkestak gidioa. Euskal Herriko ikastetxe publiko guztietara luzatzen du deia, eta eskola komunitateko partaide guztiek parte hartzeak duen garrantzia azpimarratzen du behin eta berri. Gauzak aldatzeko unera iritsi da.

Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak proposamen berri bat dakar

Urriaren 26an ospatu zen Sortzen-Ikasbatuaz elkartearen II. batzar nagusia. Bertan, 2000. urtetik hona egindako lanaren balorazioa egiteaz gain, etorkizunera begira jarri eta hainbat proposamen eta ekimen onartu dira.

2000. urtean ekin zion bere ibilbideari Sortzen-Ikasbatuazek aipatu bi erakundeak elkartu ondoren; Sortzen eta Ikasbatuaz. Sortzen izeneko plataforma 1991an sortu zen Hego Euskal Herri mailan. Euskal Herri osoko hezkuntzan ziharduen sare eta ikasmaita guztietako jendea bildu zen bere baitan, Euskal Eskola Publiko Berriaren aldarrikapena eginez. 1993an EAEn Euskal Eskola Publikoaren Legea ezarri ondoren, Sortzen plataforma EAEn desagertu egin zen eta Nafarroako eskola publiko euskaldunen elkarte izatera pasatu zen. Oinarri ideologiko eta helburu berberei eutsi zien. Ikasbatuaz, berriz, 1993an sortu zen EAEn sare publiko igarotako ikastola batzuk bildurik. Sortzen plataformaren sorreran bildutako hainbat kide elkartu ziren Ikasbatuaz eta han finkatu ziren helburuei lotu zitzaizkien. 1995ean legezatu zen elkarte bezala. 2000. urtean bi elkarteak batu eta Sortzen-Ikasbatuaz elkarte sortu zen.

Bi urteko ibilbidea egin du, beraz, Sortzen-Ikasbatuazek, eta baita hausnarketa ere. Hori da II. batzar nagusiak islatu duena. Eta are garrantzitsuagoa dena; etorkizunari begira Euskal Eskola Publiko Berriaren alde lana egiteko

zenbait proposamen onartu dira. Hezkuntzako esparru publikotik Euskal Herriko egituraketari ekarpenak egiteko indarra eta gaitasuna badagoela erakustarazi nahi dute.

Sortzen-Ikasbatuazek argi eta garbi agertu ditu bere helburu nagusiak. Hasteko, ikastetxe publiko euskaldun baten bultzata behar dituen ezaugarriak definitzea. Bigarrenik, Euskal Eskola Publiko Berria Euskal Herriko hezkuntza sistemaren ezinbesteko zutabea dela aldarrikatzea. Eta hirugarrenik, Euskal Eskola Publiko Berriaren gauzapenerako lan-ildoak zehaztea.

Egungo egoera soziopolitikoak euskal eskola publikoaren proiektuari mesederik ez diola egiten ikusten dute, ez euskararen aldetik eta ez euskal edukien aldetik ere. Argi daukate bi estaturen aldetik aldatetarik ez dela etorriko, ez baitute behar den ikastetxeko pedagogia zein kudeaketa mailako benetako autonomiarik bermartuko. Hori dela eta, Euskal Eskola Publiko Berria errealitate bihurtzeko erabaki irmoa hartu dute; dauden hesiak gainditu eta hezkuntzan marko berri bat ahalbidetu nahi dute demokrazian oinarrituta, hots, norberaren hitza eta erabakiak hartzeko eskubidea errespetatuz. Euskal Eskola Publiko Berria aldarrikatzen dute, eta ikastetxe publiko euskaldunaren aldeko urrats praktikoak ematen hasteko unera iritsi dela deritzote. Bide horretan zenbait lan-ildo proposatzen dituzte eta honela zehazten dituzte:



1. Euskal Herriko sare publiko euskalduna gorpuztea ikastetxeetatik bertatik dinamika piztuz.

2. Gaurko instituzioekiko menpekotasuneko harremanak aldaraztea, dagozkigun eskumenak exijituz.

3. Esparru publikoko euskalduntze prozesua azkartzea, murgiltze ereduari eutsiz.

4. Euskal curriculumaren diseinuan parte-hartzea sare publikotik geure ekarpena eginez.

5. Eskola Publiko Euskalduna euskal hezkuntza sistema nazionalaren ezinbesteko zutabea dela argi uztea.

6. Euskal hezkuntzako eragileen arteko elkarlana bultzatzea.

Hori guztia bideratzeko eta gauzatu ahal izateko **2003-2007ko plan integrala** diseinatu dute lau arlotan oinarrituta: antolaketa, pedagogia, ekonomia eta komunikazioa. Era berean, plan orokor hori martxan jartzeko bi bideri ekin diote ikasturte honetan: **2002-2003 ikasturteko plana eta inkesta-gidoia**.

2002-2003 ikasturteko plana

Plan Integral orokorraren xedek betetzera bideratuta daude ikasturte honetan abian jarritako egitekoak, eta lau dira: antolaketa eta baliabideak, Euskal Herriko curriculum, ikastetxearen autonomia eta beste hezkuntza

erakundeekiko elkarlana.

Antolaketa eta baliabideei dago kienez, bi helburu ditu Sortzen-Ikasbatuazek; bata barne antolaketa indartzea da, eta bestea azpiegitura indartzeko baliabideak lortzea.

Euskal Herriko **curriculumaren** kasuan, Euskal Herriko beste erakunde batzuekin batera proposamen bat garatzen hasiak dira.

Ikastetxeen autonomia da esku artean duten beste gaia. Ikastetxe guztiek beren hezkuntza eskaintzan ziurtatu beharko lituzketen gutxiengoak zehaztea ezinbestekoa irizten diote Sortzen-Ikasbatuazeko kideek. Baina behin gutxiengoak zehaztu ondoren, horiek beteko dituen Hezkuntza Proiektua diseinatzeko autonomia osoa behar du ikastetxeak, hots, eskola komunitate osoak. Beraz, Hezkuntza Proiektua garatzeko behar beste baliabide izan behar ditu ikastetxeak, eta baliabide horiek kudeatzeko autonomia, noski. Zentzu horretan, Sortzen-Ikasbatuazek, LAB eta EHIGEekin batera, proposamen ireki bat egiten du ikastetxeetan autonomia hori gara dadin: zenbait ikastetxetan proiektu pilotuak jartzea eta, proiektu horien ebaluaketa integrala egin ondoren, emaitzak onak balira, autonomiaz bizi nahi duen ikastetxe orori aukera hori zabaltzea. Horretarako, lehendabizi ikastetxeetan eztabaidatu behar da proposamena; bide horretan abiatzeko zein dauden prest jakiteko. Eta aldi berean, sindika-

tuekin, hezkuntzako beste eragileekin eta instituzioekin hitz egingo da, proiektuarekiko ahalik eta adostasun zabalena lortu asmoz.

Azkenik, 2002-2003 ikasturteko planaren azken atala hezkuntzako **beste erakundeekiko elkarlanari** zuzendua dago, horri ere garrantzi handia ematen diotelarik.

Inkesta-gidoia

Planaren xedek lortzeko, Euskal Herriko ikastetxe publiko guztietako kideen parte-hartzea funtsezkoa dela azpimarratzen dute Sortzen-Ikasbatuazeko eragileek behin eta berriz. Izan ere, Euskal Eskola Publiko Berriaren eraikuntzan guztiek esku hartu behar dute: ikasleek, gurasoek, irakasleek, langile ez irakasleek...

Hori dela eta, esku-hartzea errazteko, **inkesta-gidoi** bat prestatu du Sortzen-Ikasbatuazek eta Euskal Herriko ikastetxe guztietara banatuko da, nahi duen orok erantzun dezan. Inkesta hori tresna bat izango da denon artean ikastetxe publiko euskaldun batek zein ezaugarri bete behar dituen zehaztu ahal izateko.

Inkesta-gidoiak hiru atal ditu: 1-Nor gara? 2- Zer nahi dugu? eta 3-Zer egin? Atal bakoitzean definizioen eta helburuen proposamenak agertzen dira, eta norberak horien inguruko ekarpenak eta testu hobekuntzak egin ditzake.

Banaka, taldeka edota ikastetxeka bete daiteke inkesta-gidoia, helburua ahalik eta partaidetza handiena lortzea delarik.

Egutegiari dagokionez, Aste Santuak bitartean ikastetxeetan eztabaidak gauzatzeko eta ekarpenak egiteko epea irekiko da. Ondoren, ekarpen guztiak bildu eta txosten bat egingo da eta Sortzen-Ikasbatuazek asmoa ekainean ezohiko batzar batean txosten adostua aurkeztea da. Ondorioak Euskal Herriko ikastetxe publiko guztietara igorriko dituzte eta parte hartu duten pertsona guztiekin bilduko dira lan-ildoak azpimarratzeko eta bakoitzak bere ikastetxean plan integralaren garapena bultzatzen.





G A I A

Eraiki dezagun denok

Euskal Eskola Publiko Berria



Hona hemen inkesta-gidoian planteatzen diren galderak

1. Nor gara?

Nortasunaren ikurrak:

Definizio proposamenak

1.1. Ikastetxe publiko euskalduna eskola eredu berri bat da

- Euskaraz hezi eta bizitzea bultzatzen duen eskola.

- Autonomian oinarritutako eskola.

- Anitza eta integratzailea den eskola eredu.

- Euskal Herrirako lan marko berri eta propio baten alde dagoen eskola.

- Eredu publiko eta osoki finantzatutakoa bultzatzen duen eskola.

- Erabaki guneetan eskola komunitate osoaren parte-hartze zuzena bermatzen duen eskola.

- Euskal Herriari dagokion hezkuntza sistema nazionalaren oinarria den euskal eskolaren alde dagoen eskola.

Euskal Eskola Publiko Berriaren eraikuntzan parte hartu nahi baduzu, zure ikastetxeak nolakoa izan behar duen erabaki nahi baduzu, har ezazu parte prozesu honetan.

Sortzen-Ikasbatuaz

Tel.: 943 303 504

E-posta: sortzen-ikasbatuaz@ikasbatuaz.euskalnet.net

sortzen@arrakis.es

sortzen-ikasbatuaz@euskalnet.net

2. Zer nahi dugu?

2.1. Ikastetxe publiko euskaldun batek bultzatu beharrekoa da: euskalduntasuna

- Euskara

- Euskal kultura

- Euskaraz hezi eta bizi

2.2. Ikastetxe publiko euskaldun batek bultzatu beharrekoa da: autonomia eta demokratikoki kudeatua

- Titulartasuna

- Partaidetza

- Planifikazioa

- Langileria

- Kudeaketa ekonomikoa

2.3. Ikastetxe publiko euskaldun batek bultzatu beharrekoa da

- Laikoa

- Hezkidetzan oinarritua

- Anitza

- Kalitatezkoa

- Integratzailea

- Pedagogia berritzailea

2.4. Ikastetxe publiko euskaldun batek bultzatu beharrekoa da: osoki finantzatua

- Ikasleei begira

- Pedagogia berrikuntzan

- Hezkuntza egitasmoaren arabera

2.5. Ikastetxe publiko euskaldun batek bultzatu beharrekoa da: lan marko berri bat

- Lan harremanetarako euskal esparrua

- Lan hitzarmen propioak

3. Zer egin?

3.1. Errorekei erantzuteko eredu praktikoa

- Esparru publikotik bertatik ekarpena egitea

- 2003-2007ko plan integrala

- Partaidetza

- Plan Integrala onartzeko ezohiko batzar nazionala egitea.

3.2. Plan integralaren arlo nagusiak eta egin beharrekoa

- Antolaketa

- Pedagogian

- Ekonomian

- Komunikazioan

“Euskal Eskola Publiko Berriaren eraikuntzan denak parte hartzera bultzatzen ditugu”

Sortzen-Ikasbatuazek Euskal Herri osoko ikastetxe-etara banatuko duen inkestagidbiari buruz aritu gara elkarteko lehendakari Juankar Aretxabaletarekin eta koordinatzaile Marije Fullaondorekin. Inkesta horren zergatia eta beraien planteamenduen nondik norakoan berri eman digute.

Zer-nolako inkesta-gidoia da?

Sortzen-Ikasbatuazek lau urteko plan integrala egin du Euskal Eskola Publiko Berria errealitate bihurtzeko. Plan horretan Euskal Herriko ikastetxe guztietako pertsona guztiei parte hartze zuzena izateko aukera ematea planteatzen dugu. Haatik, plan integralaren txosten mardula banatu beharrean, lana errazteko asmoz eta erakargarria egiteko, inkesta xume bat egin dugu.

Inkesta-gidoiak hiru zutabe ditu:

lehenengoa, nor garen definitzeko, hau da, ikastetxe publiko bat nola osatzen den, zein den bere asmoa, ibilbidea...; bigarrena, zer lortu nahi dugun erabakitzeko, hots, helburu zehatzak; eta hirugarrena, nola lortu zehazteko.

Guk abiapuntuko hausnarketa egiten dugu esparru publikotik; bada-kigu zer daukagun eta etorkizunari begira, zer nahi dugu? Datozen aldaketen aurrean zerbait planteatu behar dugu, zerbait egin behar dugu. Bada, hori jakin nahi duguna, eta horretarako, noski, oso garrantzitsua da ahalik eta pertsona gehien iritzia jasotzea. Horregatik, inkesta Euskal Herriko ikastetxe publiko guztietako zuzendaritza taldeei, klaustroko irakasle guztiei, ikasleen ordezkariari, guraso elkarteko ordezkariari, langile ez irakasleei... banatuko diegu.

Inkestaren bitartez eztabaida ikastetxe guztietara zabaltzeko nahi dugu, parte hartzeko mezuarekin batera. Ez dugu etengabeko eztabaida teorikoa planteatzen, baizik eta norberak esatea epe motz bati begira

nola ikusten duen ikastetxe publiko euskaldun batek egin beharrekoa. Gure proposamenak tresna bat izan nahi du, ez jomuga.

Zergatik planteatu duzue orain, memento honetan?

Orokorrean Euskal Herrian hainbat arlotan definitzeko garaia ailegatu zaigu, eta hezkuntzan ere bai, ez baita irila bat. Hemendik aurrera ezinbestekoa da Euskal Herriko ikuspegiari aitzia, ezin dugu jarraitu orain arteko eskemarekin; hau da, puntualki hezkuntzako sektore desberdinetako pertsonak bilduz zerbait planteatzeko, eraso bati erantzuteko... Hori egin behar da, baina guk zerbait egonkorragoa planteatzen dugu: etorkizunari begira zer-nolako eskola nahi du Euskal Herriak? Eta gure kasuan, zer motatako eskola publikoa? Herritarra? Ofiziala?

Gaur egun gizartea dago legearen zerbitzura eta ez alderantziz, legea gizartearen zerbitzura. Zentzu horretan, gauzak dagoen legediaren arabera planteatzen dira eta ondoren lege horien aplikazioak datoz, gainera. Aplikazioak murriztaileak baldin bada, desmotivazioa dator, eta hori ikusten dugu orokorrean: legea ez dugu propiotzat sentitzen, eta hala sentitzen ez denean ez gara inplikatzeko. Gure neurria eta gure betebeharrak dagozkien legeak eta planteamenduak behar ditugu, eta horiek zein diren ondoen dakiena eskola komunitatea da.

Batzuek gustura egongo dira oraingo funtzionamenduarekin, baina beste batzuek ez. Eta gustura ez gaudenoi aldatzeko aukera ematea nahi dugu.





G A I A

Eraiki dezagun denok

Euskal Eskola Publiko Berria

G

Esan al liteke orain arteko eskola publikoaren ereduak ez zaituztela asetzen eta beste eskola publiko mota bat bilatzen duzuela?

Dudarik gabe. Daukaguna ez da nahikoa eta beste eredu bat behar dugu, guztion partaidetzan oinarritua, adostua, diseinatua, garatua...

Zer da, zuen ikuspegitik, eskola publikoan aldatu behar dena?

Gaur egungo eskola publikoari hainbat gabezia ikusten dizkiogu. Adibidez, sare publiko euskaldunak gorpuztu egin behar du eta euskalduntze prozesua azkartu egin behar da. Bestalde, historikoki instituzioekin izandako menpekotasunarekin amaitu egin behar da, beste harreman mota bat sortuz. Horrez gain, izugarriko atomizazioa dago ikastetxeen artean, ikastetxeko sektoreen artean, pertsonen artean... eta horren aurrean ezinbestekoa da elkarlana trinkotzea.

Jakin badakigu hori guztia ez dela erraza, baina nonbaitetik edo norbaitek hasi behar du, eta guk, gure ikastetxetako eskola komunitate osoaren (guraso, ikasle, irakasle, langile ez irakasle...) ordezkari izanik, hasiera emateko motore izan gaitezkeela uste dugu.

Euskal Eskola Publiko Berriaren planteamendua egiten duzuenean ikastetxea hartzen duzue subjektutzat.

Bai, hala da. Egin dugun planteamendua hezkuntzako erakunde guztiei aurkeztu diegu eta ekarpenak eta zabalpena eskatu dizkiegu: sindikatuei, alderdi politikoei, instituzioei... baina kontziente izanik benetako indarra ikastetxeetan dagoela, horiek direla oinarrizkoak; ikastetxeak eta ikastetxe bakoitzaren Hezkuntza Proiektua, hori baita eskola baten arima edo iparra. Zoritzarrez, ordea, memento honetan daukagun egiturazko arazoarekin proiektu horrek mugak ditu. Gaur egun ezin ditugu ikastetxeetan onartuta dauden Hezkuntza Proiektuak garatu, mugatuta gaude.

Zein dira Hezkuntza Proiektua garatzeko dauden mugak?

Batez ere historikoki izan diren lege organikoak, bai estatu frantsesekoak eta bai estatu espainiarrekoak. Guk ez dugu zuzeneko esku-hartzerik izan lege horietan, inposatuak izan zaizkigu.

Nafarroan eta EAEn datorren Kalitate Legea ere inposatua izango da. Muga horren aurrean zer aurreikusten duzue? Nola jokatuko duzue?

Guk ezin diogu itxaron lege horrek ikastetxeetan edo Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuetan izango duen gauzarenari, eta ezta ere instituzio desberdinetatik etorriko zaigun aginduari. Helduak garenez, prozesu honetan esku-hartze zuzena izateko eskubidea daukagu. Hau da, zilegi da

Egun ikastetxeetan dagoen erosotasunetik eta pasibitate-tik ateratzeko ilusioa piztu dezakeen aukera berri bat, proposamen berri bat aurkeztu dugu. Eta horrek guztion partaidetza eta sektore guztien malgutasuna eskatzen du.



Euskal Eskola Publiko Berria eta euskal hezkuntza sistema propioa errebindikatzeko dugu. Hori izateko eskubidea daukagu eta memento honetan eskubide hori ez da errespetatzen. Beraz, egoera aldatu egin behar dugu.

guk geronek lantzea gure Hezkuntza Proiektua. Beraz, goazen egin behar dugun hori lantzerantz eta gero ikusiko dugun non dauden trabak. Bigarren mailatik atera eta protagonistak bihurtu behar dugun.

Euskal Eskola Publiko Berria eta euskal hezkuntza sistema propioa errebindikatzeko dugun. Hori izateko eskubidea daukagu eta memento honetan eskubide hori ez da errespetatzen. Beraz, egoera aldatu egin behar dugun, bestela, zer-nolako hezkuntza eta balioak jasoko dituzte belaunaldi berriek?

Baina, nola eramango duzue hori aurrera praktikan?

Negoziatu egin beharko da administrazioarekin, sindikatuarekin... Guk planteatzen dugun prozesuak denontzat onurak ekarriko dituela uste dugu: ikastetxearentzat bere Hezkuntza Proiektua garatu ahal izango duelako, ikasleentzat zer esanik ez, eta baita irakasleentzat ere, egonkortasun minimo bat eta proiektuari egokituak lan baldintza egokiak ziurtatzen dituelako.

Beste aldetik, baliabideak ikastetxeak bere beharretatik abiatuta kudeatzeak ere abantaila dakar.

Egun ikastetxeetan dagoen pasibitatek ateratzeko ilusioa piztu dezakeen aukera berri bat, proposamen berri bat aurkezten dugu. Eta horrek guztion partaidetza eta sektore guztien malgutasuna eskatzen du.

Esan al liteke ikastetxe bakoitzak bere Hezkuntza Proiektua garatzeko duen ahalmena hartzen duzuela oinarritzat?

Bai. Izan ere, Hezkuntza Proiektua da ikastetxearen oinarria, bere iparra eta nortasuna markatzen duena. Dena den, proiektuak, paperetan, zoragarriak izan daitezke, baina ikastetxeetan gauzateko aukerarik ez badago, ez da posible aurrera ateratzea. Hori bai, gauzatzeko aukera izanik ere, proiektu zoragarri baten atzean horretan sinesten duten pertsonak ez baldin badaude, orduan ere ez da posible izango ezer egitea. Guk geure proiektuetan sinesten dugu, eta horregatik gaude hemen.

Zuen planteamenduetatik ondoriozta al dezakegu ikastetxeek autonomia gehiago behar dutela? Hori aldarrikatzen al duzue?

Bai, Hezkuntza Proiektuak aurrea eramateko ikastetxeek orain daukatena baino autonomia gehiago behar dute izan. Horregatik, autonomia garatuko duten proiektu pilotu batzuk hainbat ikastetxetan abian jartzea da gure lehen asmoa. Gure planteamendua da eskola komunitate osoak zehaztu, definitu, adostu eta onartu behar duela Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua eta berau aurrera eramateko behar dituen baliabideak. Eta horretarako, autonomia behar du. Beraz, hori zenbait ikastetxetan martxan jartzea da gure lehen erronka.

Eta gero, ondorio positiboak ematen baditu, nahi duten beste ikastetxeetara orokortzeko aukerarik ikusten al duzue?

Autonomiaren aukera, inor derri-
gortu gabe, horrela bizi nahi duten
ikastetxe guztiei zabaltzea da gure
helburua. Ez dakigu, norainoko za-
balkundea izan dezakeen proiektuak,
horrek egitura aldaketa eskatzen
baitu eta aldaketa hori eman da-
din borondate politikoa ezinbestekoa
da. Hori ez dago, zoritxarrez, gure es-
ku. Dena dela, guk gure aldetik positi-
boa dela erakusten jarraituko dugu,
eta positiboa den heinean, aukera ho-
ri bizi nahi dugun guztioi irekitzea exi-
jituko dugu.

Zergatik pentsatzen duzue auto- nomia gehiagorekin hobeto funtzio- natuko duela ikastetxe batek?

Oso erraza da. Memento honetan
zentralismo batetik abiatzen gara eta
badirudi 100 km-tara dagoen batek
gure herriko eta, sekula santan bisita-
tu ere egin ez duen gure ikastetxeko
egoera guk baino hobeto ezagutzen
duela eta berak esaten digu zer mota-
tako eskola egin behar dugun, gure
gela kopuruarentzat zenbat irakasle
dagokizkigun eta abar. Ikastetxean
bertan dagoenak ez al du hobeto ja-
kingo zein diren bere egoeratik abia-
tutako beharrak? Ikastetxe guztiak
berdinal al dira, bada? Eta, ondorioz,
“denontzako kafea”ren politika bali-
agarria al da?

Bestetik, egungo hezkuntza siste-
man, sare publikoan ez bada ere, ba-
daude autonomiaz funtzionatzen du-
ten ikastetxeak, eta euren emaitzak
onak direla ere frogatuta dago.

Gure ustetan, hezkuntza mailako
esperientzia positibo guztiak baliatu
behar ditugu kalitatezko hezkuntza
publikoa berma dadin.

**Baina gauza batzuk ezarrita dau-
de. Adibidez, Gaztelania astean lau
ordu irakatsi behar direla. Ikastetxe
batek ezin esan dezake bi ordu
emango dituenik.**

Zergatik ez? Legez ez, baina ikaste-
txeak erabakitako ibilbidearekin le-
geak ezartzen duen gutxiengora eta
gehiagora ere irits daiteke. Gutxi-
en-



Ikastetxean bertan dagoenak ez al du hobeto jakingo zein diren bere egoe- ratik abiatutako beharrak? Ikastetxe guztiak berdinal al dira, bada? Eta, ondorioz, “denontzako kafea”ren poli- tika baliagarria al da?

goak bete behar dira, baina nork esa-
ten du gai konkretu bat 3. mailan eta 8.
mailan irakatsi behar dela? Zergatik
ezin da ikasi beste maila batean? Adi-
bidez, hiri oso industrializatu batean
bizi diren ikasleen beharrak eta eza-
gutzak ez dute zerikusirik baserri gi-
roko ikasleek dituztenekin. Batzuk
beraz dituzten ezagutzak, etxetik eta

ingurutik jasotzen dituztenak, beste-
ek ez dituzte.

Gutxiengo batzuetara iritsi behar
dute ikasleek, baina ikastetxeak anto-
latu dezake horra iristeko ibilbidea.
Ikastetxeak berak ezagutzen ditu
ikasleak, zer behar dituzten, zer egoe-
ra sozio-linguistiko-ekonomiko du-
ten...

G A I A
Erakiki dezagun denok
Euskal Eskola Publiko Berria

G

Luis Mari Zulaika

Heziketa fisikoko irakaslea



Modu erakargarrian eta
ulerterrazean ariketa fisikoa
eta osasunaren arteko erlazioa
zein den azaltzen da liburuan



Luis Mari Zulaika

E

Guztiok kirola egitera animatzeko asmoz, ez dago ariketa fisikoaren aldeko ezaugarriei buruz informatzea bezalakorik. Mezu hori hedatzeak jendea parte hartzera bultzatzen lagunduko du, bai eta chitura sedentarioak izateko arriskua gutxitu ere

Luis Mari Zulaika zarauztarrak 14 urte daramatza Heziketa Fisikoko irakasle lanetan. 1999an *Heziketa Fisikoa eta auto-kontzeptua* tesia aurkeztu zuen eta orain *Kirola egiteko 30 arrazoi* liburua egin du Maite Muñorekin batera.

Kirola egitearen garrantziaz eta onurez aspaldian hartu zen Luis Mari, baina baita kirola egiteko moduak eta helburuek bereziko garrantzia dutela ere. Goi mailako kirola nagusi den gizar-te honetan, zaila suertatzen da kirol horren eraginetatik eta balioetatik askatzea; esfortzua, errendimendua, emaitzak dira garrantzitsuenak. Eskola kirola edo ariketa fisikoa egitea, ordea, ez da gauza bera, eta hori azpimarratzen du behin eta berriz Luis Mari. Bakoitzari berea.

Kirola eta heziketa, heziketa eta kirola, bi jarduera horien arteko oreka eta osagarritasuna bilatzea da bere kezka, eta ahalegin horretan dihardu han eta hemen bere ekarpenak eginez, eta batzuetan izerdia botaz ere bai.

***Kirola egiteko 30 arrazoi* liburua argitaratu berri duzue Maite Muñoa medikuak eta biok. Zer maitzen da bere orrialdeetan?**

Oinarrian izenburuak berak dioena biltzen da eta hori da edukia; kirola egiteko 30 arrazoi ematen dira. Arrazoi bakoitza bi mezu eta irudi batez azaltzen da. Mezu bat haurrei egokitutakoa da; laburra eta komiki moduan agertua orrialde bakoitzaren sarreran. Bigarren mezua, berriz, helduei zuzendutako da eta luzexegoa. Modu erakargarrian eta ulerterrazean ariketa fisikoa eta osasunaren arteko erlazioa zein den azaltzen da liburuan.

Zerbait baloratu edo maitatu ahal izateko, ezinbestekoa da haren garrantziaz jabetzea. Liburuxka honetan azaltzen diren edukiak zabalduz irakurleengan eragin nahi da; gorputza eta osasuna zaintzea zein ona den ohartarazi nahi da eta, aldi berean, oinarrian ariketa fisikoa duten jardueretan parte hartzera motibatua. Guztiok kirola egitera animatzeko asmoz, ez dago ariketa fisikoaren aldeko ezaugarri buruz informatzea bezalakorik. Mezu hori hedatzeak jendea parte hartzera bultzatzen lagunduko du, bai eta ohitura sedentarioak izateko arriskua gutxitu ere.



Xede horrekin, liburuan irudiei indar handia eman diegu erakargarriagoa eta arinagoa izateko.

Haurrentzako eta helduentzako moduko liburua da, beraz.

Bai, hala da. Batetik, haurrentzat erakargarria da irudi aldetik landua dagoelako eta mezuak beraiek ulertzeko moduan laburtuta daudelako. Eta horrez gain, beste testu sakonago bat da go helduentzat. Azalpen horretan zifra, taula eta datu ugari agertzen dira, medikuntzako eskuliburuetatik ateratakoak. Dena dela, eskuliburu horiek astunak izan ohi dira eta guk laburtu eta modu erraz eta ulergarrian jarri ditugu, eta horrez gain, euskaratu.

Nolatan otu zitzaizuen liburu hau egitea? Hutsune, gabezia edo beharren bat sumatzen al zenuten?

Argitalpen ugari jorratu dute ariketa fisikoaren eta osasunaren arteko erlazioa, baina horien artean oso gutxi ditugu euskaraz eta modu labur, ulerterraz eta dibulgatzailean, haurrentzat eta helduentzat balio dezaketena. Arrazoieta bat hori izan da. Eta beste bat guk geronek sumatzen genuen beharra.

Maite sendagilea da eta ikusten zuen eguneroko lanean jende asko etortzen zitzaiola arazo edo gaixotasunekin. Bera konturatzen zen botikak errezetatu beharrean gaixoen egune-

roko bizimoduan zertxobait aldatuz arazoak konpon zitezkeela. Hau da, egunero oinez zerbait ibiliz, egunero ko lanetan aktiboki parte hartuz... Horrelako aldaketa txikiekin arazo ugariri aurre egingo ziela ikusten zuen.

Bestalde, ni Heziketa Fisikoko irakaslea naiz eta aspalditik nabil haurtzaroko kirolaren inguruan kezkatuta eta lanean. Aldaketa garaian bizi gara eta jendeari gero eta gehiago kostatzen zaio konpromisozko kirola egitea. Egia da kiroldegietan jende asko ikusten dugula; squash pixka bat egiten, saskibaloio pixka bat... baina konpromiso serio batekin, kirol batean federatuta, talde batean, lotura batekin... gero eta zailagoa da, jendea ez baitago prest.

Beraz, bi arazo horiei bueltak ematen aritu ginen eta kezka komun horri erantzun nahian hasi ginen: batzuen kasuan osasun arazoak konpon zitzakeelako, eta besteen kasuan kirola egiteak merezi duela konbentzitzeko eta animatzeko.

Zuen kezka z gain, gainontzeko jendearen aldetik horrelako material baten eskaerarik sumatzen al zenuten?

Zenbait irakasleren aldetik bai. "Osasuna eta kirola" LOGSEko 2. mailan eskaintzen den aukerazko arloa da. Arlo hori ematen duten hainbat irakaslek esan digute lan honek hutsune izu-



garria betetzen duela, arlo horretako eskolak ematerakoan materiala lortu ezinik ibiltzen zirelako, eta are gehiago euskaraz.

Liburuan kirola egiteko 30 arazoi ematen dituzue. Arazoi horiek nolabait laburtzekotan, zuk zein onura aipatuko zenituzke?

Oso zaila da liburu guztia laburbiltzea, baina multzoka sailka daitezke, gorputzeko aparatu desberdinei dagokienez zer onura dakarzkigun ikusita.

Horrela, lehenengo eta behin, zirkulazio aparatua aipatuko nuke; hots, odola gorputz osora garraiatzen duen sistema horrek jasotzen ditu bereziki onura nabarmenenak: hodiak malgutzen ditu, odola bera ere arinago joaten da, odolaren osaketan koipea gutxitu egiten da, eta ondorioz errazago garraiatzen da, bihotza gutxiago nekatzen da...

Bigarren mailan lokomozio sistema aipatuko nuke, bai hezurdura eta bai giharrek. Hezurdurari dagokionez, sedentarioa den pertsona batek eta ariketa fisikoa egiten duen batek izugarritzko aldea eduki ohi dute. Osteoporosia, artrosia... agertzen dira pertsona sedentarioen kasuan. Eta giharretan ere aldea oso nabarmena da.



Luis Mari Zulaika

E

Liburuan aipatzen diren 30 arrazoi horiek bakar batean laburtu beharko balira, ni lehenengoarekin geldituko nintzateke: bizi kalitatea hobetzen duela. Hau da, ariketa fisikoarekin osasuna hobetzen dugu, eta ondorioz bizi kalitatea

Arnasketa aparatuan ere hobekuntza nabarmenak eragiten ditu kirola egiteak. Xurgatzen dugun oxigenoa odolera iritsi eta karbono oxidoarekin trukatzeko hori hobeto egiten du ariketa fisikoa erregulariki egiten duen pertsona batek sedentarioa den batek baino.

Dena den, liburuan aipatzen diren 30 arrazoi horiek bakar batean laburtu beharko balira, ni lehenengoarekin geldituko nintzateke: bizi kalitatea hobetzen duela. Hau da, ariketa fisikoarekin osasuna hobetzen dugu, eta ondorioz bizi kalitatea.

Kirola eta ariketa fisikoa gauza bera al dira?

Berez kontzeptu desberdinak dira. Oro har, ariketa fisikoa giza gorputzari mugimendua eta nekea eskatzen dion edozein jarduera da. Beraz, hor sartu beharko lirake egunean zehar oinez egiten ditugun lekualdatze guztiak, etxeko lanak, eskulan guztiak... Horiek guztiak ariketa fisikoak dira eta ariketa fisikoak onurak dakartzala esaten dugunean horiek denak kontuan hartu behar dira. Beraz, kontzeptu hau kirolarena baino zabalagoa da. Kirol jarduera guztiak ariketa fisikoa dira, baina ez alderantziz.

Nekea aipatu duzu. Ariketa fisikoa egiteak nekea edo sufrimendua al dakar beti? Sufrimenduarekin lotu behar al dugu?

Beti lotu izan dugu erosotasuna geldirik egotearekin edo ez nekatzearekin; eta ariketa fisikoa, aldiz, nekatzearekin. Edonola ere, momentu honetan zerbait subjektiboa baldin badago, hori pertzepzioa da. Orduan, zu kontziente baldin bazara zer lortzen duzun ariketa fisikoarekin eta gustuko jarduera aukeratzeko baduzu, gozatu egin dezakezu egiten duzun bitartean. Askok gara ariketa fisikoa eginez gozatzen dugunak, jarduera bera egin bitartean ondo pasa eta disfrutatu egiten dugulako. Ariketa fisikoa ez da egin behar ona dela esan digutelako edo agindu egin digutelako eta hortzak estutu eta gaizki pasaz. Behartuta egiten bada, epe laburrean zer-

baitetarako balio dezake, baina epe luze seguru ezetz. Nik ikusi izan dut jendea bat-batean eguerdiko 12:00etan, izugarritzko beroarekin, zira handia jantzita, ahoa zabaldua... Masokak gara, baina dena bere neurrian. Pertsona horiek behin ikusten dituzu, bitan ere bai, baina ez gehiagotan. Horren ordez gutxieneko planifikazio bat egin behar da, epe luzeak ezarri, pixkanaka hasi eta gozatu kirola egin bitartean. Bestela, ziur utzi egingo duzula.

Nik uste dut bakoitzak gustuko duen espezialitatea bilatu behar duela, berari dagokion intentsitatea, bolumena, jarduera maila eta abar, nolabait kirola eginez ongi pasatzeko.

Nori gustatzen zaio nekatzea edo izerdia botatzea? Nola bultzatu kirola egiteko motibazioa horren aurrean? Gakoa da beste asetze iturri batzuk lortzea eta kirola egiten den bitartean ondo pasatzea. Asetze iturri hori batzuek koadrilarekin astean behin palan jokatzen joanez aurkitzen dute, beste batzuek galtzen duenak garagardo bat



ordainduz... Bakoitzak ikusiko du ase-
tze iturri hori zein bidetatik lortu, baina
garbi dagoena da kirola egin bitartean
ondo pasatzea eta gozatzea lortu behar
dela.

**Eskolaren esparruan edo haurtzar-
roan hiru kirol mota bereizten dira:
heziketa fisikoa, eskola kirola eta
kirol federatua. Zein dira hiruren arte-
ko desberdintasunik azpimarraga-
rirenak?**

Desberdintasuna helburuek jar-
tzen dute. Heziketa Fisikoaren eta
eskola kirolaren helburua haurraren
garapen integralean laguntzea da,
ikuspegi hezitzailea dute. Kirol
federatuaren xedea, ordea, errendi-
mendua hobetzea eta emaitza onak lor-
tzea da.

Kirol federatua 12-14 urtetik gorako
gazteentzat izaten da eta klubek eta fe-
derazioek antolatzen dute. Helburua
errendimendua hobetzea da eta
gaitasun altuko gazteek bai-
no ez dute parte hartzen.

Heziketa Fisikoa
oinarrizko hezkuntza-
ren barruan dagoen
derrigorrezko ikas-
gaia da eta oinarrizko
curriculum diseinuak
zehazten du nola gau-
zatu behar den. Hau da,
Hezkuntza Sailak arautzen
du eta gero ikastetxe bakoitzak
zehazten du. 3-16 urte bitartekoa da eta
helburua haurraren garapen integral-
ean laguntzea da. Hori kontuan izanik,
beraz, kirolaz gain hainbat jarduera bil-
tzen ditu: gorputzaren ezagutza eta
onarpena, gorputzadierazpena, trebe-
tasunak, aisialdirako aukerak, natur
ekintzak, jolasak... Beste ezaugarri bat
erabateko partaidetza da. Derrigorrez-
ko hezkuntzan haur guztiek parte har-
tzeko ekintzak egin behar dira, gelako
haur guztientzat baita. Denen onurako
den zerbait da eta bakoitza bere mailan
eta erritmoan joango da hobetzen.

Eskola kirola eskola orduek kanpo
egiten den kirola da eta bere helburua
ikasle edo partaide horien garapen in-

tegrala lantzea litzateke, formatzailea
eta hezitzailea izatea, alegia. Modu ho-
netan bakarrik uler daiteke **eskola ki-
rola** izeneko antolaketa bat; bestela,
eskolako adinean gauzatutako kirola
edo beste zerbait izango litzateke.

EAEn Foru Aldundiek eta ikastetxe-
ek antolatzen dute, nahiz eta modu
berean ez egin. Gipuzkoa da, esate ba-
terako, ikuspegi hezitzaile gehien
hurbiltzen dena. Hau da, bera da 8-16
urteko gazteentzat eskola kirola antola-
tzen duena eta federazioek edo klubek
ezin dute beste antolaketa paralelorik
prestatu. Horrela, lehentasuna gazte
guztien partaidetzari ematen zaio.
Beste lurraldeetan, aldiz, federazioek
eta klubek adin horretako kirolaririk
onenak hautatu eta horiekin antolatzen
dituzte txapelketak, eta gainontzeko-
entzat eskola kirola dagoela argudia-
tzen dute. Modu horretan goi mailako
taldeetarako harrobia ziurtatzen de-

la esaten da, baina ikusi
egin beharko litzateke
zer eragin edo kalte
dituen gainontze-
ko gazteen artean
bereizketa hori
egiteak. Izan ere,
sarritan gazte as-
ko lur jota geldi-
tzen dira aukera-
tuak izaten ez badira.

**Nolako eskaintza egi-
ten die eskola kirolak gazteei?**

Lehen esan bezala, normalean 8
urterekin hasten dira eta ikasturte ba-
koitzean kirol bat baino gehiago egiten
dituzte DBHko 1. ziklora arte, hots, 14
urtera arte. Adin bakoitzean kirol kopu-
rura desberdina da eta hiruhilabetero
txandatzten da. Kirol ugari dituzten au-
keran: atletismoa, igeriketa, futbola,
saskibaloia, eskubaloia, eskupilota,
herri kirolak, mendizaletasuna... eta
horrela, 30 aukera baino gehiagotara
iritsi arte.

Zergatik antolaketa anitz hori?

Filosofia umetan denetik egitea de-
lako, ez kirola soilik, baita beste hainbat
alderdiren lanketa ere: motrizitatea,



pertzepzioa, koordinazioa... Hori guz-
tia landuta daukan gazte bat, 14-16 urte
egitera iristen denean, gai da edozein
jardueratan moldatzeko, kirol teknikaz
gain oinarrizko heziketa fisikoa landu-
ta duelako. Orduan, pertsona hori
biharko egunean berak aukeratutako
kirolean moldatu ahal izango da. Aldiz,
kirol bakarra lantzen bada gaitasun ba-
tzuk soilik lantzen dira.

Ikerketa ugari egin dira horren in-
guruan. Esate baterako, Bartzelonako
Joko Olinpikoetan dominak irabazi zi-
tuzten kirolari gehienak ez ziren kirol
horretan hasitakoak, gaztetan beste
modalitate edo kirol batean arituak bai-
zik. Beraz, espezializazio goiztiarra ez
da egokiena.

**Noiz hasten dira, orduan, kirol ba-
kar bat egiten, edo bestela esanda,
noiz hartzen dute gustuko duten kiro-
lean aritzeko erabakia?**

Gipuzkoan 14 urtetik aurrera auke-
ra lezake bakoitzak zein kirol duen
gustukoena, horretara soilik mugatze-
ko urte osoko denboraldian zehar.
Gaitasun handia duten haurrek, zen-
bait espezialitatetan (futboleko esate
baterako), 12 urterekin hasteko aukera
badute.

Heziketa
Fisikoa irakasteko
moduak
autoestimuan badu
eragina. Denek
parte hartzeko
jarduera bat egiten
bada, gorputza
lantzen ikasteko,
bakoitza bere
neurrian hobetzeko,
konpetitiboa ez
dena hurrek
beren buruaz duten
pertzepzioa
hobetzea lortzen da

Nolako da Heziketa Fisikoko irakasleen eta eskola kiroletako erakusleen prestakuntza?

Lehen Hezkuntzako irakasle izateko espezialitate horretako irakasle diplomatura behar da eta Bigarren Hezkuntzarako SHEEko (IVEF) lizentziatura.

Eskola kirolari dagokionez, ostera, egoera nahasia eta desberdina da. Neurri handi batean jokalaria gazteak dira hurrei erakusten dietenak. Horien prestakuntza ez dago arautua eta planifikatua. Beraien kualifikazio maila hobetu beharra ikusten da eta eskualdeka ikastaroak antolatu izan dira. Hala ere, zaila da. Gipuzkoako kasuan, Foru Aldundia Internet bidezko ikastaroak prestatzen ari da, entrenatzaile eta monitore bakoitzak bere etxetik landu ahal izateko.

1999ko martxoan "Heziketa fisikoa eta autokontzeptua" tesia aurkeztu zenuen. Zer aztertu eta ondorioztatu zenuen lan harekin?

Autoestimua eta kirolaren arteko lotura aztertu nuen. Beti espero da eskola kirolak pertsonen osotasuneko garapenean laguntzea eta ariketa fisikoak eta kirolak dituzten onurak ematea. Baina jakina, horren balio hezitzailea bere diseinuaren eta orientazioaren baitan egongo da.

Horrela bada, kirola egiten dutenek egiten ez dutenek baino autoestimu altuagoa ote zuten aztertzeko egin nuen ikerketa. Horretarako, Gipuzkoako zenbait ikastetxetako 10-11 urteko ikasle batzuk hartu nituen lagin bezala eta hiru parametro aztertu nituen:


1- Eskola kirolean parte hartu edo ez: parte hartzen zutenek autoestimu altuagoa zutela ikusi genuen.

2- Titular, ordezkoa edo ez parte hartzaile izan: titularrek ordezkoe baino autoestimu altuago zutela ikusi zen, eta ordezkoe parte hartzen ez zutenek baino altuagoa. Hori nahiko interesgarria izan zen, zenbaitetan ordezkoe parte hartzen ez dutenek bai-


no autoestimu baxuago eduki izan dutelako.

3- Generoa: neskek mutilek baino autoestimu baxuagoa zuten.

Datu horiek bildu ondoren autokontzeptu fisikoa hobetzeko programa berezi bat eraman genuen aurrera. Hiru ikastetxetan ikerketan murgilduta geundenok eman genizkien Heziketa Fisikoko eskolak 10 urteko ikasleei hiruhileko batean, eta beste hiru ikastetxetan ohiko irakasleek. Heziketa Fisikoa irakasteko moduak autoestimuan eraginik ba ote zuten edo ez jakin nahi genuen eta baietz ohartu ginen. Denek parte hartzeko jarduera bat egiten bada, gorputza lantzen ikasteko, bakoitza bere neurrian hobetzeko, konpetitiboa ez dena... hurrek beren buruaz duten pertzepzioa hobetzea lortzen da. Beraz, Heziketa Fisikoko curriculum espezifikoa batekin autokontzeptu fisikoa hobe daiteke.



Urtxintxa Eskola eta Hik Hasi elkarrekin euskal jolasak sustatzen



Euskaraz jolasten ikasteko
ikastaroak zuen esku

Mugak gaindituz, eskola handitu

Eskolen arteko postatrukea



Jose Luis BARD N
Gautegiz Arteagako eskolako irakaslea

Mugak gaindituz, eskola handitu leloa aukeratu zuen guraso elkartek 2001eko eskola publikoaren festarako. Eta egiaz, titulu egokia da eskolen artean eduki dugun gure bi urteko posta trukeko esperientziarentzat.

Gure esperientzia 2000-2001 ikasurtean hasi zen, iraileko astelehen batean. Astelehenero bezala, lehen saioan gelako asanblada egin genuen; biribil erdian bildurik asteburuko bizipenak, laneko planen martxa eta sortzen ziren hainbat alderdi lantzen hasi ginen. Astelehen hartan Euskaldunon Egunkariaren **Xingola** gehigarria erakutsi nien. Bertan Nafarroako eskola unitario bateko neska-mutilek posta trukea eskatzen zuten.

Posta trukea ohiko ekintza da gure eskolan, urte guztietako jarduera, eta izatez, Leongo eskola batekoekin gatzelaniazko posta trukea geneukan.

Gure ohiko hizkuntzan, euskaran, posta truke bat edukitzeko aukera aztertu eta baloratu genuen. Nafarroako eskola mapa batean kokatu genuen, Baztango Amaiur herrian. Ez genuen inoiz Nafarroako eskola batekin posta trukekerik eduki, eta erantzutea erabaki genuen.

Lehendabiziko urtea

Hasteko, gutun kolektibo bat egin genuen eta bertan gure herria kokatu genuen, eskolaren ezaugarriak azalduz eta norberaren aurkezpen indibiduala eginez. Azken honetarako teknologia berrietarajo genuen; eskanerra erabili genuen bakoitzaren argazkia bidaltzeko. Posta truke honetan informazio eta komunikazio teknologia be-

rrien erabilpena oso alderdi garrantzitsua izan da.


Posta truke bat mantentzen den guztietan bezala, erantzuna jasotzeko ezinegona handia izaten da eta nahi baino gehiago luzatzen da, nahiz eta epea laburra izan. Denboraren kontzeptua ere garatzeko dago.

Iritsi zitzaigun, bada, erantzuna Amaiurtik. Bertako gelan Lehen Hezkuntzako neska-mutirik zeuden, 2. eta 3. ziklokoak. Gure antzeko egoeran zeuden, gu baino hiru gehiago ziren. Eta posta trukeerako irtenbidea erraza zen; gure gelako norbaitek korrespondentsal bat baino gehiago izango zituen.

Horrela, bada, korrespondentsalak mailak kontuan hartu gabe aukeratu ziren, eta aurkezpeneko ezaugarriak hartu genituen kontuan. Taula bikoitz bat egin genuen jasotzen genituen gutunen kontrola eraman genezan (*ikus behean*).

(Iker)				
Arteaga Amaiur	Amagoia Xabier	Amagoia Xabier	Amagoia Xabier	Amagoia Xabier
<input type="checkbox"/> Ikerrek idatzitakoak	<input type="checkbox"/> Data <input type="checkbox"/> Data <input type="checkbox"/> Data	<input type="checkbox"/> Data <input type="checkbox"/> Data	<input type="checkbox"/> Data <input type="checkbox"/> Data <input type="checkbox"/> Data	<input type="checkbox"/> Data <input type="checkbox"/> Data
<input type="checkbox"/> Ikerrek jasotakoak	<input type="checkbox"/> Data <input type="checkbox"/> Data	<input type="checkbox"/> Data <input type="checkbox"/> Data <input type="checkbox"/> Data		

MAYA



Pertsona bakoitzeko lauki bat zegoen eta bakoitzak zituen korrespondentsalak eta bidalitako eta jasotako gutunena datak idazten zituen. Horrela, gutunak nork zor zituen jakiten genuen.

Eskolen arteko posta trukea

Bi posta truke mota mantentzen genituen: kolektiboa eta indibiduala.

Posta truke kolektiboa gela osoaren ardura zen eta batez ere eskola lanekin osatzen genuen, jeneralean Ingurumenaren Ikerketari eta Hizkuntzari zegozkion lanekin. Zenbaitetan posta trukea hainbat lan egiteko aitzakia bihurtzen zen, adibidez: herria, eskualdea, fauna eta landaretzako lanak, ipuinak, olerkiak, gutun motak eta abar. Gure "eskolako liburuko" ekintzak ere komentatzen genituen.

Korrespondentzia mota honek eskola bakoitzaren eskualdeko eta lurraldeko liburuxkak trukatzeko balio zigun.

Norbanako posta trukea ikasle bakoitzaren gain zegoen, eta gelan edo etxean egiten zen. Posta truke honek bi alderdi zituen: gutuna eta trukatzeko ziztuzten objektuak. Behin gutuna idatzi ondoren, testua zuzentzeko eskatzen zidaten, baina ez beti. Posta truke honetan nik bi alderdi baloratu nituen: eskolako eta intimitatea. Bakarkako jarduera izan zedin utzi nuen, beraien erantzukizunean burututako ekintza. Gelan gutunontzi bat genuen eta data konkretu baterako gutun guztiek prest egon behar zuten.

Edozein modutan, zenbait kasutan gutun desagokiak idatz daitezke, ez forma aldetik, edukiari dagokionez baizik. Baina gelako martxari adi egonez gero, tutorea berehala ohartzen da horretaz eta arlo interesgarria da gelako asanbladan lantzeko.

Posta truke honetan telefono zenbakiak eta posta elektronikoko helbideak, baldin bazeukaten bederen, ematen zizkieten elkarri. Modu horretara, eskolako komunikazioaz gain, beste batzuk ere sor zitezkeen.

Aipatzekoa da beste komunikazio bide bat ere: Internet. Eskola biek genuen gure presentzia sarean. Gure eskolak web orri bat zeukan; www.galeon.com/montorre (gaur egun www.montorre.com web gunea dugu) eta Amairuko eskolak Baztango eskola guztien artean argitaratzen duten www.kazeta.org aldizkari elektronikoa parte hartzen zuen. Aldian-aldian bisitatzen genuen beraien aldizkaria, eta horrela, egiten zituzten ekintzen berri izaten genuen. Era berean, gure orrialdea osatzen joateko pizgarri bat zen, korrespondentselek gure aurrerapenak ikus zitzaten.

Bultzada kualitatiboa

Martxoan espero ez genuen aldaketa bat gertatu zen gure posta trukearen baitan. Gure gelako familia bat kanpora joatekoa zen opor-zubi batean, eta nora? Amairrera. Eskolako jarduerak ustekabeko eta programatu gabeko





emaitzak ematen dituzte sarritan. Gure familia hori nekazaritza turismoko etxe batera joan zen. Etxe hartan eskolako adina zuen haur bat zegoen eta eskolara joan zen, Nafarroan ez baitzen jai eguna. Gure ikaslea ere berarekin joan zen. Aipagarria da portaera hori, inguruneari irekitako eskolarena, alegia. Nekazaritza inguruneko eskoletan funtsezkoa izan ohi da.

Egonaldi puntual horrek ilusio gehiago piztu zigun. Argazkiak, informazioa, txutxu-mutxuak eta abar ekarri zizkigun familia hark eta gure korrespondentsalak hobeto ezagutzen lagundu ziguten. Horrekin batera, hara joateko gonbidapena ekarri ziguten.

Amaiurko egonaldia

Amaiurrerako bisita alde zurretik aurreikusitako gabeko zerbait zen. Gure artean eztabaidatu genuen eta ekainean joatea erabaki genuen.

Amaiurren oso kontent zeuden to-paketarekin eta zalantza bakarra zeukaten: non eman ostatu. Errazena eskolan bertan lo egitea zen, maistraren etxe zaharreko gela huts bat aprobetxatuz. Beraz, arazo logistiko hori konpondu ostean, bisita prestatu ziguten.

Ekainaren 14an abiatu ginen eta furgoneta batean agertu ginen Arteagako zortziak Amaiurren. Iritsi aurretik ikusi gintuzten eta ailegatzeko eskolaren kanpoaldean zeuden zain. Elkartu os-

tean eskolako jangelan bazkaldu genuen denok elkarrekin. Lehenengo eguna herrian ibiltzen eta jolasten pasatu genuen. Neska-mutil nafarrek oso harro erakusten zizkiguten herriko txoko eta bazter maiteak: udan bainua hartzerantz joaten ziren zubi azpiko putzua, auzolanean berreraikitzen ari ziren ermita, barraskiloak eta ostrukak hazten dituzten granja, independentziaren aldeko bataila mantendu zuen gotorlekua gogorazten duen monolittoa, baserriak, zibilak bizi izan ziren Bordajaurgia, eskuzko pilota partidaren sekulako pasada eman ziguten pilotalekua, errota zaharra eta beste hainbat leku. Bizipenez jositako lekuak dira, herritarrentzat esanahia dutenak, komunikatu eta transmititu egiten duten tokiak. Erabili, bisitatu eta gozatu egiten diren lekuak direnez, historia eta oraindik zentzua daukate bertakoentzat.

Gaua luzea izan zen. Haurrak berandura arte ibili ziren herrian jolasten. Gauean eskola inguruan jolastea eta gure lagunekin bizitzea oso erakargarria izan zen. Oheratzeko garaia iritsi zenean, ez lo egitekoa, denak batera jarri ziren lurrean, bakoitza bere zakuan.

Hurrengo egunean Amaiurko amak arduratu ziren guztiaz. Bertzerako irteera antolatu zuten; beraiek eraman gintuzten, ingurunea erakutsi ziguten eta bazkaria prestatu zuten. Guztiok gozatu genuen irteera hartan.

Eskolaz kanpoko trukeak

Posta trukea garaian eta garaitik kanpo fruituak ematen dituen zuhaitza da. Lehen aipatu dut gelako posta trukeaz gain, beste komunikazio mota bat ere bazela: norberaren telefonoaren eta posta elektronikoaren bidezkoa. Komunikazio horien bitartez Amaiurko hiru neska udan Arteagako neskalgun baten etxera etortzekotan gelditu ziren.

Bigarren urtea

Lehenengo urtean posta trukea oso ongi garatu zen eta aurrera jarraitzea merezi zuela ikusi genuen. Korrespondentsal berberak mantenduz jarraitu genuen, beraz. Amaiurko egonaldiaren ondoren, bigarren urte honetan Arteagara etortzea aurreikusten genuen.

Gautegiz-Arteagako egonaldia

Amaiurko gure lagunak irailean etorri ziren, ikasturtearen hasiera garai egokia iruditu baitzitzaigun posta trukeari bultzada bat emateko. Kanpotarrak gure etxeetan hartu genituen eta jatorduak eta irteerak antolatu genituen herritarren laguntzarekin.

Egonaldi honetan, Amaiurrekoan bezalaxe, gurasoen partaidetza funtsezkoa izan zen. Beraien laguntzarekin hondartzak bisitatu genituen, baztandarrentzat leku erakargarria benetan. Baita ere Kortezubi eta Basondo zentroa, zeina Xabier Maiztegi Fundazioaren egoitza den eta Busturialdeko fauna eta landaretzara eskainitako lekuak den.

Noski, lehenengo gure eskola erakutsi genien, eta gero herria poliki-poliki ezagutu joan ziren.

Besteen etxean lo egitea esperientzia berria izan zen gure lagun askorentzat, eta gure ikasle askorentzat ere bai beren etxeetan lagunei ostatu ematea. Amaiurko ikasleak, gu bezalaxe, urtero joan ohi dira nekazaritza eskolaren batera, baina banaka etxe batean gaua pasatzea erronka ezezaguna eta berria zen.

Eskolako posta trukea

Bigarren urtean aurreko urteko bi posta truke motak mantendu genituen eta posta elektronikoaren erabilera areagotu egin genuen. Posta horrek motibatze eta gure irteera eta landako lanen xehetasun gehiago emateko balio izan zigun. Ikasturtean zehar bere baitan irteerak zituzten hainbat proiektu egin genituen. Ibilbide horien berri ematen genien gure korrespontsalei programa informatiboak erabiliz. Posta elektronikoaren erabilera pizgarri izan zen horrelako lanak egiteko.

Ikasturte amaierako bidaiak Amaiurrera

Eskola bilera batean Amaiurko gurasoek tutoreari berriz herrira gonbidatzeko proposamena egin zioten, oraingoan beraien etxeetan lo eginez. Gonbidapena eta programa bidali zituzten eta gure ikasleek erreparoz erantzun zioten; Amaiurrera joateko prest zeuden, baina besteen etxean lo egiteak ez zituen asko erakartzen. Denek elkarrekin egin nahi zuten lo, aurrekoan bezala. Gaia eztabaidatu egin zen eta gonbidapena eginga zegoen bezala onartu behar zela erabaki zen. Alternatibarik sortu ez zenez, haien baldintzetan joatea onartuko zen; are gehiago, bagenekien etxeren batean lo egingo genuela, baina ez zein etxetan. Horrela izatea erabaki genuen, alferrikako eztabaidak ekiditeko.

Amaiurko lehen egonaldian amen parte-hartzea garrantzitsua izan baldin bazen, bigarren honetan funtsezkoa suertatu zen. Leku berriak ezagutu genituen, eta herriak txikiak izan arren ikusteko asko zuten. Horrez gain, ingurunea ere zoragarria da. Adibidez, Erratzu herria eta Gorostapolo auzoko Xorroxin ur-jauzia.

Beldurra sorrarazten zuen gaua ere iritsi zen, eta hurrengo goiza ere bai, inork uste baina lehenago. Ez zen inolako arazorik egon, dena ondo joan zen. Beldurra gainditu zen, eta besteen etxean lo egitea ez dela traumatikoa frogatu zuten, atsegina izan litekeela baizik.

Bigarren egunean Zugarramurdira joan ginen gurasoak, irakasleak eta ikasleak. Akelarreak ospatzen ziren eta Inkisizioak hain ezaguna egin zuen koba ikusi genuen. Handik Urdazubira joan ginen, Axular idazlearen jaioterria, euskal literaturan mugarri izan zen "Gero" liburua idatzi zuen egilearen sorlekura. Azkenik, Otsondoko portura igo ginen zelaian bazkaltzera.

Itzulerako bidaietan zenbait opari ekarri genituen motxilan; baina oparirik preziatuena eta gehien iraungo duena bi egun haietako elkarbizitzaren oroimena izango da.

Posta trukearen amaiera

2001-2002 ikasturtea bukatu ostean, posta trukeari amaiera ematea erabaki genuen. Amaiurko ikasle asko Bigarren Hezkuntzara pasa dira eta egoera asko aldatu da. Baldintza berrietan posta trukea mantentzea nahiko behartua ikusten genuen. Korrespontsalen artean lotura afektiboak sortu ziren eta ikasleen egoera aldatu ostean lotura horiek mantentzea ezinezkoa zen.

Balorazioa

Lehenengo eta behin, eskola komunitatea osatzen dugun guztiok, ikasleak, familiak eta irakasleak, oso gustura gelditu garelako azpimarratu behar dugu.

Eduki kontzeptualen, prozedurazkoen eta portaeren balorazioa egiten badugu, horiek guztiak lantzen eta garatzen diren une ugari sortzen direla esan daiteke.

Posta trukea mantentzeak hizkuntza idatziari komunikazio balioa ematen dio; hizkuntzarekiko funtsezkoa dena, hain zuzen ere. Hainbat testu mota lantzen dira hizkuntza zehatz batean, eta testu horien bidalketak bitarteko eta prozedura batzuk eskatzen ditu. Era berean, jarduerak honek beste leku bateko pertsonekin harremanetan jartzen gaitu, eta horrek errespetuzko jarrerak mantentzea eskatzen digu, baldin eta harreman horrek iraun dezan nahi badugu. Aipatu dugun hori guztia begien bistakoa da; baina, horrez aparte, badaude a priori ikusten ez diren beste hainbat alderdi, aurreikus ezin daitezkeenak, bizitzan bertan bezala, eta jarduerak honekin horixe gertatzen da. Gurasoen partaidetza ezin zen programatu, eta ezta eskolatik at sortu zen komunikazio paraleloa ere. Jarduera asko aberastu duten alderdiak dira.

Bestalde, eskualde bietan euskalki ezberdinak daude eta posta trukearen bitartez hobeto ezagutu eta ikasi dituzte. Horrekin batera, ingurunea gehiago ezagutzeko eta zaintzeko interesa piztu zaie. Laburbilduz, oso jarduerak aberasgarriak izan da eskola komunitate osoarentzat. •



Teknologia Berriak



Klik programa eta honen arrakasta eskolako hezkuntzan



Alejandra BOSCO

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea


Klik programaren jarduerak oso azkar hedatu dira Katalunia osoko Lehen Hezkuntzan, estatu espainiarrean ere erabiltzen dira eta bere mugetatik at ere erabiliko direla dirudi. Programa hainbat hizkuntzataraz itzuli da, eta Katalunian bezala, Lehen Hezkuntzako programa erabilien bihurtu liteke. Artikulu honetan programa horren garapenetako bat aztertzen da eta ikastetxeetan izan duen arrakastaren zergatiak azaltzen dira. Egindako analisia Bartzelonako Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean burututako ikerketa zabalago baten barmuan kokatzen da (Bosco, 2000).


Hurbilpen labur bat Klikera

Klik programa informatiko bat da eta bere ezaugarri nagusia, aurretik erabakitako oinarriko eredu batzuetatik abiatuta, jarduera hezitzaileak sortzea da. Abantailetakoa bat honakoa da: jarduera horien edukiak eskola curriculumeiko alderdi guztiak barne hartzen dituela. Izatez, ia arlo guztietarako aplikazioak daude.

Modu laburrean esanda, jarduerak horiek honako eredu hauek barnertzen dituzte: buruhausgarriak, elkarretak, letra zopak, gurutzegramak eta testu ariketak. Buruhausgarriak, letra zo-

pak eta gurutzegramak hitz horiekin beraiekin ezagutzen ditugun ohiko jokoa dira. Hartzailearen arabera zailagoak edo errazagoak izan ohi dira eta normalean zailtasun txikienetik handiagorako ordenean aurkezten dira. Elkarretetan, ematen den aginduaren arabera, bi taula desberdinetako edukiak ordenatu behar izaten dira. Taula horietako lauki kopurua berdina izan daiteke (**ikus 2. irudia**), edo konplexuagoa denean, jatorrizko taulako laukiak taula hartzailean laukirik gabe gelditu daitezke edo bi lauki lauki berberekin lotuta gelditu daitezke. Elkarretak





zenbatzailea eta izendatzailea aukeratzeko eskatzen da.

Hurrengo ariketetan, jarduera konbinatu egiten da; batzuetan zenbakiekin idatzita agertzen dira zatikiak, eta besteetan grafikoki adierazita. Edonola ere, kasu guztietan zatiki berdina adierazten duenarekin batu behar dira.

Jardueren paketearen erdialdera letra zopa bat aurkezten da (**3. irudia**): lehenengo izendatzaileen izenak aurkitu behar dira (erdia, laurdena...).

Beste behin ere zenbakiz idatzitako eta grafikoki adierazitako zatikiak agertzen dira, eta gero eta konplexuagoak izango dira. Hurrengo jarduera multzoan zera galdetzen da: aurkezten diren irudietatik zeinek adierazten duen zatiki zehatz bat, adibidez $\frac{2}{6}$ (**4. irudia**).

“Aurkitu bikotea” esaldiarekin berriro ere zatiki berdina, hala zenbakiekin nola grafikoekin adierazitakoak, lotu behar dira. Ideia bera domino jokorekin aurkezten da jarraian, balio berdina aurkezten duten zatikiak identifikatzeko, hots, unitatearen banaketa berdina.

“Memory” jarduera batek aurrekoen jarraipena mozten du. Jarduera horretan laukiak bilatu behar dira eta, beren edukia gogoan hartuz, bikoteak osatu behar dira beste berdin bat topatutakoan.

ekintzen barruan informazio pantailak ere sartzen dira. Izenak berak dioen bezala, informazioa aurkeztu baino ez dute egiten (**ikus 1. go irudia**). Ondoren datozen jarduerak aurkezteko balio dute. Informazio pantailen edukia testua, irudia, zenbakiak eta abar izan daitezke. Azkenik, erantzun idatzia izeneko jarduerak daude. Testua sartuz erantzuten dira eta, horretarako, ordenagailuaren teklatua erabiltzen da. Hainbat ariketa mota daude: hutsuneak bete, testuak osatu, hitzak identifikatu, hitzak ordenatu, paragrafoak ordenatu... Baina oinarria berbera da guztietan: galdera bati erantzuteko hitzak edo testua sartzea, aukeratzea edo aldatzea.¹

Lehen esan bezala, oinarriko eredu honek curriculumeko arlo guztietako jarduerak garatzeko aukera ematen du. Programa honen balio hezitzailea baloratzeko, Matematikarako egindako jarduera pakete bat aztertu zen. Arlo horrek 5. eta 6. mailako curriculumeko eduki garrantzitsuak biltzen ditu. Azterketak Kemmis-en (1977) kategorietan oinarrituz egin ziren (artikulu honetan aurrerago azalduko dugu eskematikoki).

Matematikako aplikazioa: zatikiak


Klikeko aplikazio honek zatikien gaia lantzen du eta hiru jarduera multzo ditu. Lehenengo soilik deskribatuko dugu, hirurak antzekoak baitira egin dugun ikerketaren ikuspegitik.

Paketea informazio pantaila bate-

kin hasten da. Bertan zatikien definizio bat ematen da irudi baten laguntzarekin. Irudia grafikoki egindako definizioa da.


Jarraian, informazio pantaila berri batek zatikiaren hiru zatiak definitzen eta identifikatzen ditu. Hau da, zer den zenbatzailea, zer den izendatzailea, eta berriro definizio hori grafikoki adierazten du. Bertan zenbatzaileak eta izendatzaileak unitate osoarekiko zer adierazten duten deskribatzen du. Hurrengo pantailetan jarduerak hasten dira: lehendabizikoetan taula batean grafikoki adierazitako zatiki bakoitzaren zenbatzailea eta izendatzailea zein diren identifikatu eta zenbakiekin idatzi behar da aldamenean dagoen taula batean.

Aurrerago beste taula batean grafikoki agertzen diren zatikiei dagozkien



3. Irudia

¹ Programa honen deskribapen zehatza honako helbide honetan aurki daiteke: www.xtec.es/recursos/clic



4. Irudia

Gainontzeko jarduerak berdintsuak dira, nahiz eta aldaketa batzuk egon; esate baterako, zatikiak txikienetik handienara edo handienetik txikienera ordenatzea.

Definizio berri batekin batera jarduera multzo berri bat hasten da: zein da zatikirik handiena eta zein txikiena? Galdera horietatik abiatuta, kontzeptu berri hori lantzeko jarduera multzo bat hasten da. Guztiek lehen deskribatutako ezaugarrien antzekoak dituzte.

Aplikazio horren balorazioa: Kemmis-en kategoriak

Inglaterra 60ko hamarkadan ezarri zen "National Development Programme in Computer Assisted Learning" lanetik (MacDonald et als, 1977)² abiatutako ikerketa zabal baten ondorioz, kategoria batzuk osatu ziren, eta gure analisia kategoria horietan oinarritzen da. Bere helburua ordenagailuak ikaskuntzarako eta irakaskuntzarako zuen ahalmena ikertzea zen. Aipatutako programari esker 35 proiektu eta ikerketa garatu ziren eta aplikazio informatiko ugari sartu zituzten curriculumeko arlo guztietan. Aplikazio informatiko horien gainean egindako ikerketen eta analisen ondoren bi kategoria sortu ziren. Kategoria horiek programa horretan erabilitako euskarri logiko desber-

dinak deskribatzen dituzte hainbat ikuspuntutatik. Alde batetik, curriculumeko kategoriak, eta horietan oinarrituz erabilitako aplikazioak ikuspegi pedagogikotik justifika daitezke (irakaskuntzaren paradigma). Beste aldetik, hainbat ikasketa eredu deskribatzen dituzten kategoriak (zeregin kognitiboak). Azken horiek sortzeko bi gauza hartu ziren kontuan: ikasketaren gaineko ikerketaren emaitzak eta Ordenagailu Bidezko Ikasketari buruz egindako baieztapenak. Horien azpian dagoen ikasketaren ideiak zerikusi handiagoa du ikasketa prozesuarekin, azterketek erakuts ditzaketen emaitzekin baino. Ikuspegi horretatik begiratuta, kategoriak ikaslearen eta "programaren" arteko balizko elkarreragin motak deskribatzen dituzte, hauek lan intelektual desberdinak ahalbidetzen dituztela kontuan hartuta. **(ikus 1.go eta 2. taulak)**

Aipatutako kategoriak jokoan jarri aurretik, begiratze hutsarekin oharutako gara ariketa horiek ordenagailu bidezko ikasketarako (EAO) programa baten antzekoak direla, kontzeptu horren adiera muriztuenean oinarrituta. Hau da, erabiltzaileari informazio bat aurkeztu eta gero, galdera edo ariketa bat ematen dioten programen antzekoa da, eta bere ekintza erantzunaren

bitartez baloratzen dute (Alonso, 1994). Programa mota horiek Amerikako Estatu Batuetan sortu ziren 50ko hamarkadan, paradigma konduktistaren eta bere ezarpen pedagogikoaren une gorenean. Arrazoi horregatik oinarritzen dira ikasketaren ikuspegi honetan, hein handi batean.

Egiaz, proposatutako kategoria horietan oinarritutako analisia lehen hautemate hori baieztatzen du. Zeren, nahiz eta paradigma hezigarri bati zuzenean ez erantzun, hori da proposamenetik gertuen gelditzen dena. Hots, haurri material bat aurkezten zaio, eta nahiz eta zuzenean galderarik ez egin material horri buruz, jarduera multzo bat proposatzen zaio, eta horrek aurretik aurkeztu zaion informazioa jokoan jartzea dakar. Programak ez digu esaten haurrak nola edo zein modutan erantzun dion jarduerari, ematen duen erantzuna baino ez baitu egiaztatzen. Erantzuna zuzena izango da aurretik programak ezarritakoarekin bat egiten badu. Baliteke zenbait haurrek ezagutza batzuk jokoan jartzea, zatikien kontzeptuaren ulermena batez ere, baina ez da programa eginkizun kognitibo hori bultzatzen duena. Era berean, jarduerak konplexutasun maila txikitik handira doaz eta ikaslea berehala ematen dituen erantzunen arabera atzerailikatuko da. Ezaugarri horiek guztiak paradigma hezigarriarekin erlazionatuta daude.

Aztertutako aplikazioak proposatzen dituen eginkizun kognitiboetako dagoenez, jarduera programetan ohikoak direnak dira (ingelesez drill&practice izenez ezagunak). Paradigma hezigarriari eta elkarreragin kognitiboari ere lotutako programa motak dira. Elkarreragin kognitibo horri ezagutzea eta oroitzea deitzen zaio analisirako proposatutako sailkapenaren arabera (Martí, 1992; Streibel, 1993; Alonso, 1994). Beste modu batera esanda, jardueran zehar subjektuak aurretik aurkeztu zaion informazioa ezagutu soilik egiten du, edo gogoratu. Dena dela, barneratze hori ez da hain erraza suer-

² Horri buruzko aipamen osatua MacDonald-en (1977) aurki daiteke.

V. eta VI. irudiek aipatutako bi kategoria motak laburbiltzen dituzte.

Ikasketa eginkizunak	
Ezagutu	Aurretik aurkeztutako informazioa ezagutzean datza.
Gogoratu	Ikasleak buruz gogoratu behar du aurretik aurkeztu zitzaion informazioa.
Ulermena	Ikasleak informazioa berriro adierazi behar du egitura semantikoa kontuan hartuta.
Berreraketa globala	Ikasleak arazo bat konpontzeko erabili behar du eman zaion informazioa, eta horretarako bere egitura semantikoa berreraiki behar du.
Interpretazio konstruktiboa	Ikasleak gai izan behar du arazo berriak planteatzeko gai zehatz baten inguruan duen informaziotik abiatuta.

V. irudia. Ikasketa eginkizunaren kategoriak (Kemmis, 1977)

Irakaskuntzaren paradigmak	
Hezigarria	Ikasketako jarduerak unitate txikietan banatzen ditu, eta jarduera horiekin lotutako erantzun zuzenen (edo okerren) atzera-likadura positiboan (edo negatiboan) kontzentratzen da.
Ezagutarazlea	Diziplina baten egitura ezagutarazten zaio ikasleari, bai berearekin elkarreginean aurkitzen duen antolaketa logikoaren bidez, bai helburu horrekin proposatzen zaizkion ariketak garatuz.
Ustezkoa	Ezagutza ideien manipulazioaren eta hipotesien egiaztatzearen bitartez eraikitzen da.

VI. irudia. Irakaskuntzaren paradigmak (Kemmis et al, 1977)

tatzen kategoria honetan. Nahiz eta ikaslearen erantzunak positiboki indartu eta egiazkotzat onartutako erantzun bakarraren arabera ebaluatu, eta jarduerak konplexutasun maila baxuagoatik altuagora joan, ikasleari ez dio eskatzen aurretik aurkeztutako material bat gogoratzea edo ezagutzea. Aitzitik, ematen zaion jardueren sekuentziari erantzuteko haurrak arazoak, ariketak edo eragiketak estimulu edo erantzun batekin lotu behar ditu. Elkartze horrek elkarreragin eragilea ekar lezake soilik, hau da, zutabe bateko laukiak beste zutabeekin lotzea, erantzun egokia eman arte; edota elkartze bera burutu dezake ikasitako edo ikasten ari den kontzeptu edo prozedura bat abian jarriz erantzun beharreko ariketen gainean.

Dena dela, azpimarragarriena hau da: programak bere horretan ez duela bultzatzen ikaslea kontzeptu bati edo beste bati buruz pentsatzera. Ikaslearen pentsamendua zuzena izango da, bai ulertzen duen kontzeptu bat erabiltzen duelako edo bai saiakeraren eta errakuntzaren ondorioz ematen di-

tuen erantzunekin programak zuzentzat hartu duen erantzuna topatzen duelako. Hau da, Klikeko jarduera multzo horrek bere horretan ez du ulermena bultzatzen, baizik eta arazo bat erantzun batekin elkartu. Ariketa idatzi konplexuagoetan zailagoa, baina balizkoa, suertatuko litzateke saiakeraren errakuntza estrategia erabiltzea, kasu horretan ikasleak ez dituelako aukeratu behar programak eskaintzen dizkion erantzunak.

Bigg eta Rin-ek³ (1984) ondokoa baieztatzen dute: ikaslearentzat jarduera akademikoak bete beharreko eginkizunak baldin badira edota materialak interesik edo zentzurik ez baldin badauka (loturak egiteko beharrezkoak diren aurretiazko ezagutarik ez duelako edo beste arrazoi batzuegatik), baliteke azaleko ikuspegia, errepikatzailea hautatzea egokiena dela pentsatuta. Hots, batzuetan materialak edo ikasgaiak eginkizunarekiko beste jarrera mota bat ekar dezake. Aztergai dugun kasu honetan, eginkizuna saiakeraren errakuntza teknikaren bitartez

konpontzeko aukerak bultzatuko luke jarrera hori. Eta haurrak berehala konturatzen dira aukera horretaz. Levin-en arabera⁴ (1986), ikasketa estrategiak gutxi gorabehera ezagutzazko helburuekin bat etortzen dira. Adibidez, arau mnemoteknikoen edo testetarako zerbait estrategien erabilpenak ekintzara bultzatzen du. Hau da, helburua da ekintza ongi ebatzea, nola ebatzi behar den asko hausnartu gabe. Badirudi neska-mutilek ikaskuntzarekiko orientazio desberdinak erakusten dituztela, ikasgaiak dakiten horretan eta ikasgaiak eskatzen dienari buruz duten pertzepzioan oinarrituz.

Klikeko jardueren pakete honi dagokionez, hori oso argi ikusi zen: normalean eginkizuna menperatzera orientatutako neska-mutilek saiakeraren errakuntza teknika aukeratzen zuten proposatutako ariketak ebazteko. Bestalde, “drill and practice” jarduera programek bultzatzen duten estrategia eredu bat da. Mercer-ek (1994) hainbat euskarri logikok bultzatzen dituzten elkarreragin moten inguruan hainbat ikerketa egin zituen, eta ondorio honetara iritsi zen: jarduera programek neska-mutileen arteko elkarriketa galarazten dutela edo, bestela, itxurazko elkarriketa bultzatzen dutela. Kasu horretan ikasleek aurrez ezarritako erantzun bat edo beste bat aukeratu ebazten dute ariketa, eta hor ez da inolako elkarriketarik sortzen beraien artean, ezta erantzun okerrak ematen dituztenean ere. Badakite erantzun okerra aukeratu baldin badute, beste bat aukera dezaketela asmatu arte. Hurrengo erantzuna zein izango litzatekeen eztabaidatzeko beharrik ez dute ikusten. Ikasleen artean ekimenerako eta ekintzarako leku gehiago uzten duten beste programa batzuek oso elkarreragin desberdinak bilatzen dituzte; neska-mutilek, ekintzara pasa aurretik, eztabaidatu egiten dute eta ekintzarik egokiena zein den erabakitzen dute, programak emandako erantzunarekin zerkusia duten aurretiazko ezagutzaz baliatuz. Ezagutza hori beti desberdina

³ Prawat-en aipatuak (1996)

⁴ Prawat-en aipatuak (1996)

izango da ikasleek aukeratutako ekintza motaren arabera.

Arrakastaren zergatiaren zenbait hipotesi

Maila altuagoko pentsamenduaren garapena, sormena edota ikasketa estrategiak bultzatzen dituen aplikazio bati buruz ari gara hizketan. Hezkuntzan desiratzen diren kategoriak dira horiek, eta gaur egungo informazioaren gizartean asko aldarrikatzen direnak. Beraz, eskolan izan duen arrakastaren inguruan hausnarketa egitea merezi du. Gainera, nahiz eta hemen aplikazio bat aztertu, bere ezaugarriek programa horretan sortutako ia aplikazio guztietarako balio dute.

Lehenengo arrazoi onargarria ekonomikoa da, hots, Klik programa merkea da. Kontuan hartu behar da kalitatezko programa batek 3 eta 6 milioi pezeta artean eskatzen dituela programa eta erabiltzailearen arteko ordubeteko elkarreraginagatik. Kostu hori merketu daiteke programen bilduma bat egiten bada diseinu bakar batekin baina datu-base desberdinekin (Marqués, 1995). Hori da administrazioaren aukera bakarra, aurrekontu eskasa baitu. Beraz, Klik PIEn egindako produktuaren adibide bat da. Ariketen oinarritzko eredu batetik abiatuz egin da eta horrek ikasgai eta maila guztietarako materiala egiteko aukera ematen du. Gainera, are eta merkeagoa da ariketak irakasleek beraiek sortzen dituztelako. Ariketa horiek egitea erraza izateak bultzatzen du hori. Bestalde, ordea, ikuspuntu kognitibotik begiratuta, balio eskasekoak dira.

Gainerakoan, balio kognitibo eskas horrek ez du soilik programa merketzen, "irakasleak proban" jartzen ditu gainera. Izan ere, irakasleen presentzia ez da beharrezkoa, oso erraza baita programa erabiltzea. Horrek teknologia berrietan irakasleek duten prestakuntza eza leundu egiten du. Irakasle guztiak animatzen dira Klik erabiltzera, ez duelako inolako zailtasunik.

Egia da irakasleek ez dutela jarduer horiek egiteko obligaziorik, baina egiteak ordenagailua erabiltzeko eta curriculumari erantzuteko aukera ba-

kanetako bat eskaintzen die. Curriculum horretan landu behar diren gaiak ematen zaie lehentasuna, eta ez irakaslearen arteko eta ikasleekiko eguneroko harremanei. Azken ezaugarri horrek beste tresna batzuk erabiltzeko aukera murrizten du. Gainera, zer irabazi aterako luke "software"ko enpresa batek eskolako curriculumeko arlo bakoitzarako konplexutasun kognitibo altuko materiala egin beharko balu?

Azkenik, eskolako denboraren eta espazioaren antolaketak ere paper garrantzitsua jokatzen dute. Oso zaila suertatzen da maila altuko gaitasun kognitiboak bultzatzen dituzten programak soilik "eskola orduan" erabiltzea, ikasle bakoitzak eskolan ordenagailua erabiltzeko dituen aukera urriak kontuan hartuta. Ez denborak eta ez espazioak ez dute laguntzen. Ordenagailuak ohiko gelatik kanpo egon ohi dira, aparteko geletan egoten dira, eta kasurik onenean 10-20 ordenagailurekin. Eta astean ordu gutxi batzuetan soilik joan daitezke bertara.

Beraz, programa honen arrakastaren arrazoiak hauek dira: kostua, erabiltzeko erraztasuna, irakasleen tarteko lana eta ezagutzaren, denboraren eta espazioaren kudeaketa.

Edonola ere, beste galdera bat sortzen zaigu: teknologia berriak ikasteko eta irakasteko modu hobea sortzeko gai ote dira? Mcclintock-ek (2000) Columbiako Unibertsitatean egin duen ikerketa programa batean hauxe ikertu du: teknologia berriek pedagogia alternatiboak sortzeko dituzten aukerak. Horretarako, beste urratsekin batera, lehenengo hornikuntza behar dela dio. Hau da, azpiegitura fisikoan zein berrikuntzaren eta eraldaketaren promozioan inbertitu behar da, eta aldaketak eskolaren egitura osoan eragin behar du. Orduan, ordenagailuak ez ditu gauza berdinak egin behar, baizik eta aurretik hasitako aldaketari lagundu, hots, ikasteko eta irakasteko definizio berriari (Escudero, 1992; Bosco, 1994, 1996; Sancho, 1994). •

BIBLIOGRAFIA

- ALONSO CANO, C.: "Los recursos informáticos y los contextos de enseñanza y aprendizaje" in SANCHO, J. (koor.): *Para una tecnología educativa*, Horsori, 143-167, Barcelona, 1994.
- BOSCO, M^a A.: *El ordenador como innovación. Tesis de master no publicada*, Salamanca Unibertsitatea, Gizarte Zientzietako Institutu Unibertsitarioa, Salamanca, 1994.
- BOSCO, M^a A.: "La tecnología educativa, las prácticas de enseñanza y el uso del ordenador" in *Comunicación y Pedagogía*, 141 (1996), 16-25.
- BOSCO, M^a A.: *Los recursos informáticos en la tecnología organizativa y simbólica de la escuela. Tesis doctoral no publicada*, Bartzelonako Unibertsitatea, Didaktika eta Hezkuntza Antolaketa Saila, Bartzelona, 2000.
- KEMMIS, S.; ATKIN, R.; WRIGHT, E.: *How do Students Learn? Occasional Publication*, 5, Norwich: Center for Applied Research in Education, University of East Anglia, 1977.
- MCCLINTOCK, R.: "Prácticas Pedagógicas Emergentes. El papel de las Tecnologías de la Información y de la Comunicación" in *Cuadernos de Pedagogía*, 290 (2000), 74-77.
- MACDONALD, B.: "The Educational Evaluation of NDPAL" in *British Journal of Educational Technology*, 3 (1977ko urria), 8. bilduma, 176-189.
- MARQUÉS, P.: *Software Educativo. Guía de Uso y Metodología de Diseño*, E. Estel, Bartzelona, 1995.
- MARTÍ, E.: *Aprender con ordenadores en educación*, Horsori, Bartzelona, 1992.
- MERCER, E.: "The Quality of talk in children's joint activity at the computer" in *Journal of Computer Assisted Learning*, 10 (1994), 24-32.
- PRAWAT, R.: "Aprender como forma de acceder al conocimiento" in *Kikiriki*, 42-43 (1996), 63-89.
- ESCUDERO, J. M.: "La integración escolar de las nuevas tecnologías de la información" in *Infodidact*, 21 (1992), 25-38.
- SANCHO, J.: "Background issues on the impact of computers in education" in *Brunnstein, K. & Raubold, E. (Ed): 13th World Computer*, 94 (1994), 708-713.
- STREIBEL, M.: "Análisis crítico de tres enfoques del uso de la informática" in *MCCLINTOCK, R.; STREIBEL, M.; VÁZQUEZ GÓMEZ, G.: Comunicación, Tecnología y Diseños de Instrucción: la construcción del conocimiento escolar y el uso de ordenadores*, Centro de Publicaciones del CIDE (1993), 33-75.

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa
euskaral hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak

abenduak

Ibailalde ikastola berria inauguratu dute Lodosan

Lodosa eta Sartagudako Ibailalde ikastola berria inauguratu dute. Nahiz eta haurrak ikasturte hasieratik egon eraikin berrian, azaroaren 24an egin zuten inaugurazio ekitaldia.

Jai giroko ospakizunekin batera aldarrikapenek eta salaketek ere izan zuten beren tarte. Javier Lasheras Ibailalde ikastolako kontseiluko lehendakariak eskerrak eman zizkien proiektu horretan sinetsi duten gurasoei eta gainontzekoei. Izan ere, erakundeen oztopoen gaineratik eta Nafarroako Gobernuaren jarrera gaindituz, Nafarroako Erriberan ikastola berria eraikitzea lortu baitute.

Eraikin berria egiteko 2001eko Nafarroa Oinezan ateratako diruak bultzada handia eman die. Hiru solairuko eraikina egin dute eta 1,5 milioi euroko aurrekontua izan du.

Haur eskola eredugarriaren bila doan *Hazitegi* proiektua aurkeztu dute MUK eta Arizmendi ikastolak

Mondragon Unibertsitateak antolatutako *Haur eskola (0-3 urte) jakintza zientifikoaren argitan: galderak, erronkak eta proposamenak* jardunaldietan *Hazitegi* proiektua aurkeztu dute. Mondragon Unibertsitateak eta Arizmendi ikastolak esku artean duten proiektua da berau eta hezitzaileak, gurasoak eta haurrak mundu homogeneo eta bakar batean biltzea du helburu.

Alex Barandiaran Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta Rosa Elizburu Arizmendi ikastolako irakaslea arduratu ziren proiektuaren aurkezpena egiteaz. Iaz ekin zioten haurren gaitasun kognitiboak eta afektiboak hobekien garatuko lituzkeen haur eskolaren eredu ikertzeari. Memento honetan maila teorikoko diseinu bat egin dute, eta 2004. urtean indarrean jartzeko esperantza dute.

Hazitegi haurra, gurasoak eta hezitzailea proiektu homogeneo batean biltzen dira, guztien onura dakarrelarik horrek. Haurraren kasuan garrantzitsua da adin horretan seguru sentitzea eta lotura afektibo sendoa egitea. Hori bideratu ahal izateko, ezinbestekoa da gurasoen esku-hartzea. Hala, beste gurasoekin eta hezitzaileekin partekatze-ko esparru komun batzuk sortu behar dira. Hezitzaileek ere, gurasoek bezala, euskarria behar dute, eta arazo guztien irtenbidea ez da berauen esku utzi behar.

Proiektua abian jarri aurretik bitresnajarriko dituzte martxan: guraso eskola eta hezitzaileen prestakuntza berezkoa.

*Hazitegi*ren helburua ohiko eredu albo batera uztea da. Hau da, gurasoek haurrak "ikastetxean utzi eta ahaztu" ideia baztertea.



Ikastolen Elkartearen joko didaktikoek jolasa eta ikasketa uztartzen dituzte

Ikastolen Elkartek material berria kaleratu du joko didaktikoen esparruan. Euskarri desberdinetako materialak gehitu dizkio bildumari, besteak beste, lan-koadernak, jokoak eta CD-ROMak. Euskal kulturaren zabalkundea dute xede guztiek eta horretara bideratuta daude.

Eskuartean izango ditugun joko berriak lau dira. **"Hilabeteak"** izenekoak 28 puzzlez osatutako jokoak da eta 4-7 urte bitarteko haurrei bideratua dago. Hilabeteak ikasteko eta urtean osatzen duten zikloa ikasteko lagungarri da. Hau da, hilabete bakoitzeko elementu esanguratsu baten identifikazioaren bitartez hilabeteak ikasiko dituzte haurrek, eta baita hilabeteek urtean duten ordena ere.

"Zenbat dira?" jokoak zenbakiak ezagutzen lagunduko die 3-5 urteko haurrei, egurrezko puzzleen bidez zenbaki bakoitzari dagokion kantitatea zein den erakusten baitu.

"Zer ordu da?" 5-8 urte bitarteko haurrei zuzendutako jokoak da eta 24 puzzleen bitartez eguneko 24 orduak adierazten dira.

Laugarren jokoak **"Nire gorputza"** du izena eta gorputzeko atalak ezagutzeko balio du. 30 piezako bi puzzlek osatzen dute eta horietako bakoitzean 10 pieza handi eta 20 txiki daude. Pieza handiek neskaren edo mutilaren gorputza osatzen dute eta txikiek gorputzaren atalak irudikatzen dituzte izen eta guzti.

Lehen hiru jokoak matematika lantzeko prestatuak daude, eta azkenekoa gorputza, nortasuna eta autonomiaren esparruan koka daiteke. Joko hauek,



aurretik kaleratutako guztiek bezala, curriculumeko arlo desberdinak lantzen dituzte, ez dira joko hutsak. Adin zehatz bakoitzari dagokion gaitasunak garatzen laguntzen dute, eta curriculumeko proiektuarekin uztartzen dira. Horrez gain, balioak ere lantzen dira jokoaren bitartez, eta gure kasuan, euskal kulturaren balioak.

Aipatu dugunaz gain, begien bistan dago jokoak une ludikoetarako tresna direla eta erraminta horiek euskaraz eskainiz gero, ahozko hizkuntzaren garapenari bultzada izugarria ematen diote.

Subil, euskal kultura ezagutzen

Jokoak ez ezik, beste hainbat euskarri ere baliagarriak dira aipatu balioak eta euskal kulturaren zabalkundea lantzeko. Helburu horrekin ekin zion Ikastolen Elkartek **Subil, euskal kultura ezagutzen** lan-koadernoak argitaratzeari, eta orain 6. zenbakia argitaratu du. Azken lan horrekin Lehen Hezkuntzako 1. mailan hasitako ibilbidea amaitzen da, 6. mailan, hain zuzen ere.

Subil bildumak Euskal Herriko lau ospakizun ezagun eta esanguratsu lantzen ditu: Olentzero, Santa Ageda, Inauteriak eta San Joanak. Olentzero eta San Joanak neguko eta udako solstizioen antzinako ospakizunak dira, Inauteriak garai bateko urte hasierako

jaiak eta Santa Agedako oles egitea antzinako errito pagano batzuen aztarna. **Subil 6** azken lan honetan, maskaradak dira ardatz eta antzerki genero horretako pertsonaia ugari aztertzen dira.

Teknologia Berriek eskaintzen duten aukera aprobetxatuz, **"Xipri eta Xexili"** CD-ROMa kaleratu dute. Bertan Subil 1 eta Subil 2 lan-koadernoetako edukia biltzen da, hots, 6-7 urtekoentzako jokoak.

CD-ROMen eskaintzaren barruan **"Xakezakurtzarrari!"** ere aipatu behar da. Xakean ikasteko programa bat da eta beste hainbat aukera ere ematen ditu.

Joko didaktikoek baliabide pedagogiko bezala duten garrantzia aintzat harturik ari da lanean Ikastolen Elkartea, eta horregatik, material hauetan guztietan gozamina eta ikasketa uztartzen dituzte. •



Argitalpenak



Mila gau eta bat gehiago
Patxi Zubizarreta
Erein

Ipuinak biziaren truke kontatu zizkion Xerezadek Xariar erregeari. Gauero-gauero ipuinak ipuinen ondolik, eta ipuinak ipuinen barruan. Gau batean ipuin miresgarri bat, beste batean bidaia kilikagarri bat.... Eta istorioko gertakariak momentu erakargarrienean zeudenean eten egiten zituen biharamunean jarraitzeko, bizia beste egun batez bederen salbatzeko •



Antonio Bolas
Joxantonio Ormazabal
Elkar

Hildakoei ere barre eragingo lieketen pasadizoak aurkituko dituzu Fernando amezketarra eta Lazkao Txiki liburuekin batera trilogia osatzen duen honakoan. Antonio Bolas zegamarraren zaletasunik handiena gezurrak esatea omen zen, finak eta irudimentsuak izan ere, egiaren kolorekoak, uda batean Frantzian hiru uda frantsesez ikasten pasa zituenekoa bezalakoak •



Eguneroko esamoldeak
Alizia Stürtze, Maria Colera,
eta Josu Naberan
Gaiak

Oinarrizko Liburutegia saileko azken liburua ingelesa edo euskara ikasten edo irakasten ari diren euskaldunak eta ingelesak gogoan direla egina dago. Bi hizkuntza horiek gorputz-atalen, animalien, landareen, eta mineraleen inguruan dituzten esamolderik erabilgarrien eta herrikoien bilduma ederra eskaintzen du •




Musikako curriculumaren oinarri epistemologikoak
J. Inazio Lopez de Luzuriaga

Zer da eta nora doa euskal kultura? Zer da eta zer ez da euskal musika? Galdera horien inguruko gogoeta egitea proposatzen digu musikologoak; berea, bost zatitan banaturik dagoen saiakera bilduman eskaintzen digularik. Finean, gurean ematen diren baldintzak hobeto ezagutu behar ditugu hezkuntza proposamena eraginkorrago izatea nahi baldin badugu •



Hamlet
William Shakespeare
Ibaizabal

Juan Garzia Garmendiaren eskutik datorkigu Literatura unibertsala saileko ehungarren liburua, klasikoetan klasikoetako idazle baten antzerki ezaguna euskaratuz. Hamlet printze danimarkarra "izan ala ez izan" esanez berregutzeko aukera emango digu, sail honetako beste liburuekin egin dugun bezalaxe. Shakespearen bertsoak euskaraz gozatzeko bidea dudarik gabe •



Xango
Ikastolen Elkartea

5 urteko haurrei eskaintzen zaie Ur-txintxa bildumako azken CD-ROMa. Programaren gidari eta laguntzaile lanetan arituko da Xango matxinsaltoa, bertan lantzen diren hamabi gaietan: ikastola, garraioak, Gabonak, Inauteriak, Udaberriak, Oporrak eta San Juan sua,... esaterako, jarduera ugari aurkitzen direlarik horietan: hizki tortillak, labirintoak, memori karta jokoak, puzzleak, ipuinak, abestiak... •

Kukurruku! Zer diozu?

Ipuinak, poemak, esaera zaharrak, musika eta elkarrizketak biltzen dituen CD berria

Ipuinak, poemak, esaera zaharrak, musika eta elkarrizketak biltzen dituen CD berria da *Kukurruku! Zer diozu?*. Oilarren kukurruak egunaren hasiera iragarrichi digu, eta oraingoan egitasmo berri baten hastapena aurkezten digu.

Lan berri honek bost ipuin musikatu eta bost poema musikatu biltzen ditu. Istorio bizi batek ematen dio haria eta bertan euskarazko dozenaka esamolde jator txertatzen dira. Elementu horiek guztiak biltzen dituen egitasmo berri bat da, eta ahozkotasanaren arloan ekarpen berri bat dakar.

Jolasekin bezala, ipuinekin ere ekarpen bat egiteko asmotan zebilen Hik Hasi. Horrela, Mitxel Muruarengandik proposamen bat jaso zuen eta egoki ikusi ondoren, abian jarri zen. Mitxel Muruak berak koordinatu du lana eta euskal literaturako, musikagintzako nahiz irakaskuntzako hainbat lagunek hartu dute parte.

Ipuinen egileak euskal literaturan sona handia duten bost idazle dira: Bernardo Atxaga, Juan Kruz Igerabide, Arantxa Iturbe, Anjel Lertxundi eta Mitxel Murua. Bernardo Atxagak lan honetarako propio egin du *Zuk-Zuk jaunaren alfabeto berria*. Letra guztiak dantzan eta hizketan jartzen dituen ipuin orijinala da berau. Juan Kruz Igerabideren *Ondojoan* ipuinak, berriz, Joxe Panpin jostailu eta panpin sailtzailerari Ondojoan herrian gertatzen zaiona kontatzen du. Arantxa Iturbe eta Anjel Lertxundik konplexurik gabeko me-

zuak bidaltzen dizkigute beren ipuinetan: *Beldurtia naiz, eta zer?* eta *Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?*. Mitxel Muruak, ostera, *Mari-Puzker* ipuin atsegin eta dibertigarria dakar. Ipuinak, *Zuk-Zuk jaunaren alfabeto berria*izan ezik, Elkar argitaletxeak argitaratuak ditu.

Ipuin kontaketa lanak egin dituztenak Anjel Alkain, Iñaki Beraetxe, Hodei Iruretagoiena, Arantxa Iturbe eta Mitxel Murua izan dira, tartean zenbait haurrek eta helduk ere lagundu dietelarik. Era berean, *Beldurtia naiz, eta zer?* eta *Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?* ipuinek musika ere lagun dute, Xabier Zabala arduratu delarik musika konposatzeaz. Estilo, erritmo eta gai desberdinetako ipuinak dira; eta horrenbestez, adin desberdinetako har-tzaileentzako modukoak.

Ipuinez gain bost poema musikatu biltzen dira CD honetan. Joxan Ormazabalak idatzitakoak dira eta Elkar argitaletxeak argitaratutako hainbat liburutant bildurik daude. Aipatu bi musikariek landuta agertzen dira poemok: *Maindirepean*, *Kukulumiku-kukulumusu*, *Tzunpatatzun*. Jexux Mari Lopezegik musikatu ditu, eta *Infinitu* eta *Maitasuna* Xabier Zabalak. Ahotsajari dietenak, Garazi Egiuren tolosarra eta Uxue Urruzola billabonatarra izan dira eta koroekin lagundu dietenak Villabonako Musika Eskolako Maitane Odriozola, Maialen Diaz, Libe Arquillo eta Amets Zalakain. Iñaki Zalakain musika irakaslearen gidaritzapean aritu dira denak.

Horri guztiari lotura ematen dion istorio bat dago, lanari haria ezartzen diona. Pirritx eta Porrotx pailazoak, haurrak eta Antonio Bolas, gezurra egia-



kolorean kontatzen duen gizona dira istorio horretako partaide. Beraien arteko elkarrizketak bizitasunez, fresko-tasunez eta umorez blaituta daude, eta tartekatzen diren euskarazko esamolde jatorrek aberastasun ikaragarria ematen diote.

Oro har, joko eta aukera ugari ematen duen materiala da, eta bereziki ahozkotasuna lantzeko aproposa izan liteke. Modu ludiko eta erakargarrian biltzen dira eduki guztiak, eta entzuketara soilaz gain, esamoldeek, hitz jokoeak eta ipuinek gure hizkera aberasteko aukera ematen digute. •





Imanol Urbietta musikagile ezaguna omenduko dute abenduaren 12an

Imanol Urbietta musikari zarautzarri omenaldia egingo diote abenduaren 12an bere lagunek, lankideek eta ingurukoek. Donostiako Kursalean ospatuko da **“Imanol Urbietari omenaldia, lagunak zuri kantari”** izena eman dioten ekitaldia arratsaldeko 8:00etatik aurrera. Bere kanta ezagunenetako batzuk berriro entzuteko eta gozatzeko aukera paregabea eskainiko dute parte hartuko duten abeslariak. Besteak beste, han izango dira: Andoni Egaña, Anje Duhalde, Benito Lertxundi (bideoa), Egan, Gozategi, Jose Inazio Ansorena (bideoa), Jaione Eskudero, Kresala Dantza Taldea, Mantxi&Brakamonte, Mikel Garikoitz, Mikel Mendizabal, Mixel Ducau, Montetxio Abesbatza, Orfeoi txikia, Oskorri, Peio eta Pantxoa, Xirula Mirula eta Zarautz txiki abesbatza.

Imanol Urbietaren ekarpena euskal musikagintzan


Imanol Urbietta Zarautzen jaio zen 1943. urtean. Erromako Unibertsitatean Filosofia ikasketak egin ondoren Valentziako Unibertsitatean lizentziatu zen. Dena dela, bere bizitza musikari lotua egon da; haurren irakasle, musikajole, musikagile eta musika irakaslea izan baita. *Irrintzitalde* euskalzalearen sortzailetako bat izan zen eta *Jakinen* sorreran ere parte hartu zuen. *Oleskariak* abesbatzaren eta zortzikotearen zuzendari lanak ere egin zituen eta *Naya* orkestrinan ere esku hartu zuen.

Haurrentzako musikagintzan izu-

garrizko ekarpena egin du. Bereak izan ziren, esate baterako, haur kantarien lehen diskoak. Zarautzen Xirula Mirula Musika Eskola sortu zuen, eta gerora Donostian izen bereko Musika Hezkuntzarako Saialekua. 1.000 abesti baino gehiago idatzi eta grabatu ditu bere bizitzan zehar, askotan herrikoiak uste ditugun abestien egile bera delarik.

Liburu biografikoa

Ibaizabal argitaletxeak Imanol Urbietaren lanen bilduma bat argitaratu du, bere biografia xume batekin horniturik. Biografia Andoni Egaña bertsolari eta idazleak idatzi du. Bera ere zarautzarra izanik, aspalditik ezagutzen du “Manolo” eta egoki osatu du liburua.



Eleaniztasun Hizkuntz Proiektuak ebaluatuko dira EAEn

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Ikastolen Konfederazioak Eleaniztasun Hizkuntz Proiektuak ebaluatzeko hitzarmena sinatu dute. Akordioaren xedea da Hezkuntza Sailak abian jarriko dituen ikerketa edo ebaluazioak eta Ikastolen Konfederazioaren ikerketa eta proiektuak uztartzea. Zentzu horretan, bien artean informazioa trukatzeko eta aholkularitza eskaintzeko konpromisoa hartu dute, lankidetzara hori euskal hezkuntzarako onuragarri izango delakoan.

Ikastolak aitzindariak izan dira ingeles goiztiarraren ezarpenean eta urteak daramatzate hizkuntza proiektu eleanitzagaratzen. Hemendik aurrera bide horretan jarraitu dute orain arte egindako lanaren ebaluazioa eginez, emaitzak ikusiz eta hobekuntzak gehituz.

Bestalde, ikastetxe publikoetan 1996an hasi ziren proiektu eleanitzak ezartzen eta egun ikastetxe guztietan garatzen dira, 28.310 ikaslek hartzen dutelarik parte.

Dena prest dago abenduaren 14ko UEUren II. kongresurako

Dena prest dago Udako Euskal Unibertsitatearen II. Kongresua ospatzeko. Abenduaren 14an egingo da Bilbo-ko Euskalduna jauregian eta UEU kide-ek jakinarazi dutenez Euskal Unibertsitatearen bidean mugari izanen da.

UEUren lehenengo kongresua 1995ean egin zen eta orduz geroztik gauza ugari aldatu dira, bai unibertsitatean, bai teknologian, bai Europar Batasunaren zabalkundea dela gizar-tean, legedian eta abar. Horregatik, UEUren norabide eta jarduerari buruz hausnarketa estrategikoa egiteko garaia dela iritzi diote, besteak beste, euskal unibertsitatearen kontzeptua sakontzeko eta eguneratzeko eta UEU bera definitzeko.

Helburu nagusi horiekin lotura duten gaiak ere landu eta aztertuko

dira kongresuan: euskarazko prestakuntza eskaintzaren aukera zabaltzeko ahalegina egitea euskal gizar-tean, komunitate zientifiko-intelektualen bilgunea indartzea, titulazio mapa garatzea, elkarlan esparruak garatzea, euskal campusak sustatzea, eza-gutzaren ataria sortzea, campus birtuala garatzea, UEUren eredu peda-

gogikoa eraikitzea, hezkuntza eraiki-nen sarea osatzea lurralde guztietan, egitura propioa osatzea Ipar Euskal Herrian eta abar.

Ekimen horietan guztietan jarraitu beharreko ildoa zehaztuko da kongresuan eta bertan parte hartu nahi duen orok aukera ezin hobea du abenduaren 14an.



Ikasleen Nazioarteko Eguna ospatu dute ikasle euskaldunek

Ikasle Abertzaleak erakundeak Ikasle Gaua '02 antolatu zuen azaroaren 16an Usurbilen Ikasleen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Ehunka ikasle bildu ziren jai giroan.

Ikasle Abertzaleakeko eledunek euren aldarrikapenak egiteko aprobe-txatu zuten topagunea. Gaur egun ere hezkuntza sistemak mendeetan izandako "doktrinatz" helburua mantentzen dela adierazi zuten eta horren aurrean intsumisioa proposatzen dute. Iaz Eskola Euskalduntzeko Ikasle Alternatiba osatu zuten eta berau tresna egokia ikusten dute intsumisio bide horri jarraitzeko. Ikasturte honetan alternatiba hori garatzeko eta gauatzeko pausoak emango dituzte.

Hiru dira IAK ikasturte honetarako planteatu dituen erronkak. Lehendabizi, Ikasle Alternatibaren aldeko lana za-

baltzea ikastetxe guztietan. Euskal ikasleen hizkuntza eta kultur eskubide-en aldeko borrokarako tresna egokia dela irizten diote. Alternatibak bost proposamen nagusi ditu: Lanbide Heziketa zein unibertsitatea euskalduntzea, Euskal Herriko edukiak lantzea, A eta B ereduaren aurkako jarrera ager-

tzea eta egutegiko jaiegun arrotzen aurka jotzea.

Ikasturte honetako bigarren erronka estatu espainiarreko zein frantseseko legeen aurrean intsumisio estrate-giarekin jarraitzea da. Eta hirugarrena, LOUren aurka borrokatzeagatik errepresaliaturik izandako 34 ikasleren aldeko lana gizarteratzea eta sakontzea.



historiak zertzeladak

IKAS, kultur elkartetik euskal pedagogia zerbitzura



IKAS Euskal Pedagogia Zerbitzuak euskal irakaskuntzan du iparra; hots, euskarari eta euskarazko irakaskuntzaren hedapenari bultzatzeko jartzen du bere alea, ale handia eta esanguratsua, inondik ere.

Iparraldeko sare guztien zerbitzura dagoen erakundea da, eta euskarazko materiala eskaintzearekin batera, maileru eta kontsultaz zerbitzu zabala du.

IKASen ibilbideari so egiten baldin badiegu eta gibelera begira jartzen baldin bagara, 1959. urtera itzuliko gara. Hastapeneko kontuek garai hartara bideratzen gaituzte, eta mola ez, orduko euskaltzaleen ideiak eta lana begien bitartean jartzen dizkigute.

XX. mendearen bigarren erdialdea, gerra ondoko garaia, era guztietako aldaketa sakonen abiapuntua izatera behartuta zegoen. Irakaskuntzari zegoenez, betiko jarriak ziruditen irakaskuntza metodoak ere aire berriaren beharrez zeuden. Giro horretan Iparraldean Euskaltzaleen Biltzarreko eta Eskual Kulturaren Aldeko talde batek bideratu zuen bilkura bat egin zen, Baionako Euskal Museoa 1959ko abuztuaren 27 eta 28an, hain zuzen ere.

Ikerketa eta berrikuntzara zuzenduriko jardunaldi pedagogiko batzuk ziren, haurren heziketa bere inguru naturalera eta tokian tokiko bizimodura, hizkuntza barne zelarik, hobeto egoki-

tzearen beharra aldarrikatzera zetozenak.

Orduan Euskaltzaleen Biltzarreko lehendakari zen Louis Dassancek eman zion hasiera bilkurari. Haren hitzaldian eta ondoren jarraitu ziotenetan euskararentzat eta euskal kulturarentzat lekua egiteko proposamen sendoak eman ziren aditzera, bai pedagogian eta bai pentsakeran.

Frantzian lehen irakaskuntza derri gorrezkoa bihurtu zuten zereginak, eskolari lehenetsunezko zereginak ezarri zitzaion: frantses guztiek ikasi beharko zuten frantsesa, kultura komun bateko partaide izatea ahalbidetuko zela. Ondorioz, euskarak eta euskara be-



IKASen sortzea 1959an. Ezkerretik eskuinera: M. Inchauspe, L. Dassance, D-Garaziko alkateta, M. Labeguerie, J.M. Malharin, M. de Jaureguiberry eta Aita Noblia (Argazkia: Herria aldizkaria).

zalako beste hizkuntzek, okzitaniara, bretoiara eta katalana kasu, aurkako erasogorrajasan zuten, herrialde horietako biztanle gehienek jatorrizko hizkuntza soilik hitz egiten zutelajakin da ere.

Europako beste hainbat herrialdeetan, ordea, beste ideia batzuk zebiltzan, eta aditu askok arrazoitzen zuten herri kultura eta eskolaren arteko lotura lehenestearen beharra. Bilkura hartan elkartutako jendeak ere gauza bera pentsatzen zuten. *“Gure arbasoek landu eta perfektionatuak guztia, hain herentzia liluragarria galtzen uztea, ez al litzateke izango ukamensalagarria? Ez da, bada, harritzekoa izango haurren prestakuntza osatuago eta harmoniatsuago bat ziurtatzeko beste herri batzuek egin duten bidean abiatu nahi izatea”*. Horixe izan zen jardunaldi haietako helburu nagusia: metodo bat definitzea eta hura gauzatzeko beharrezkoak ziren baliabideak izendatzea.

Jardunaldi haietan bertan Pierre Laffitte apaizak ere azaldu zuen euskararen eta beste jatorrizko hizkuntzen aldeko lege bat edukitzearen egindako borroka eta horien irakaskuntzarako egindako saiakerak. Madeleine Jauregi-berri Aloze-Zibozen irakasle zegoen andereak, berriaz, zera zioen: *“Pentsaezina da euskaldunek euren ama hizkuntza galtzen utziko dutenik, eta begirune handia zorko genioke eskolari gure euskara eder eta liluragarria berpizteko eta garatzeko ekarpena egingo balu”*. Han, diskoetan oinarritutako euskara irakasteko metodo bat aurkeztu zuten eta hura erabiliz berak Zuberoan egin zuen esperientzia berria aurkeztu zuten.

Eugene Goienetxe irakasleak ere parte hartu zuen jardunaldietan eta hark tokian tokiko geografia eta historiaren balio pedagogikoaz eta euren erabilpen praktikoaz jardun zuen. Horretarako, bi printzipio jakinetan oinarritu zen: haurrei irakasteko eta haurrengan interesa pizteko konkretutik abstrakturako eta berezitik orokorrerako bidea egin behar dela. Tokian tokiko



IKASen 40.urtemugaren ospakizuna, Baionako herriko etxean, 2000ko abenduaren 23an. Ezkerretik eskuinera: J. Haritschelhar, J.M. Malharin eta M. Jorajuria (Argazkia: Herria aldizkaria).

historia eta historia orokorragoa osagarriak direla zioen, edozein fenomeno historikok baldintzatzen baititu inguruak.

Michel Labeguerie medikua elebitasunaren balio psikopedagogikoaz aritu zen bere esku-hartzean. Hala zioen hark: *“gizadien hizkuntzak ez dira adierazpenezko mekanismo trukagarri soilak; hizkuntzak herri bakoitzaren izaeran barneratutako funtsezko legeak dira eta gure etorkizun intelektual eta espiritual gure hizkuntzari diogun leialtasunari erabat loturik doa”*.

Aipatu abantaila horiek guztiak baieztatzeko Jeanne Marie Malharin Mugerreko eskolako irakasleak Lapurdiko Lehen Mailako eskolan izandako esperientzia azaldu zuen eta Sauveur Narbaitz Baionan irakasle zenak euskararen irakurketa eta idazketa lantzeko sortu zuen liburuxka eta haren edukiaren erabilera eman zituen eza gutzera.

Jardunaldien amaierarako, IKAS elkartearen sorkuntzari heldu zitzaion, Euskal Museoan bildu ziren guztiek estatutuak aho batez onartu zituztelarik. Kultur elkarte gisa sortu zen IKAS eta hauek izan ziren garai hartan jarritako helburuak:

- Eskolan euskara eta euskarazko irakaskuntza helburu zuten inizatiba guztiak, bai materialki eta bai moralki, bultzatzea, babestea eta laguntzea.

- Irakaskuntza publikoko nahiz pribatuko zentroak euskararen eta euskal tradizioko gaien (antzerkia, musika, dantza, folklorea, historia, geografia eta abar) irakaskuntzarako beharrez-

“Gure arbasoek landu eta perfektionatuak guztia, hain herentzia liluragarria galtzen uztea, ez al litzateke izango ukamen salagarria? Ez da, bada, harritzekoa izango haurren prestakuntza osatuago eta harmoniatsuago bat ziurtatzeko beste herri batzuek egin duten bidean abiatu nahi izatea”

koak diren baliabideekin hornitzea.

- Orokorrean, irakasleak euskara eta euskal kulturako arlo guztiak irakasteko bidean jartzea.

Lehen zereginak eta lorpenak

IKASen helburuak abiapuntutzat harturik, Paueko irakaskuntza nagusiarri eskaera batzuk igorri zitzaizkion. Hasteko, euskarazko irakasleak eskatzen ziren eta herritik urrun zeuden euskaldunei herrira itzultzeko erraztasunak ematea galdegiten zen, modu horretara euskara irakasteko jendea bil zedin. Horrekin batera, euskara irakasteko laguntzaile bat ezartzea ere eskatu zitzaion, eta irakasle ibiltariak balia zitzan ere bai.

IKASen zeregin nagusia euskarazko eta euskal irakaskuntzarako materiala eskaintzea izan da hasieratik, eta lehen lana ere huraxe izan zen: *Ikas* liburuxka egin eta hedatu zuten. Baiolan irakasle zen Sauveur Narbaitsek egin zuen eta bera eta Jeanne Marie Malharain izan ziren eskola publiko zein pribatuetan hedatu zutenak. Ondoren, liburu gehiago ere argitaratu ziren, eta jende anitzek parte hartu zuen zeregin horretan: Eugène Goyenetchek, Marie Jeanne Minaberryk, Piarres Charritonek... Ezagunak dira, besteak beste, *Haurrak ikas zazue*, *Euskal txetxilduma*, *Historia*, *Geografia eta Bi-*

garren Hezkuntzarako Euskal alorretik liburuxka.

Tartean haurrentzako euskarazko lehiaketa ere bultzatu zuten. 1969an Eskualzaleen Biltzarra Saran bildu zen eta han proposatu zuen Pierre Narbaitz kajoje bikario jeneralak lehiaketa egitea. Jeanne Marie Malharain irakasleak eta Angela Errandonea Sarako Kontseiluko kide izendatu berriak eta Kanbo, Luhoso eta Hazparden irakasle ibiltari zenak hartu zuten lehiaketaren ardura.

Hasierako ekimen haietatik hona jende andanak egin du lan IKASen inguruan; oro har, Iparraldeko euskaltzale guztiak bildu dituen elkarteak izan da. Esate baterako, lehendakari izan dira Louis Dassance, Jean Haritxelhar, Danièle Albizu eta Xan Errotabehere. Gaur egun Mixel Jorajuria da kargu hori betetzen duena.

1996ko aldaketa

IKAS kultur elkarte gisa sortu zen eta 1996an euskal pedagogia zerbitzu bilakatu zen. Definizioz aldatu arren, hasierako xede berak dituela esan daiteke: euskarari eta euskarazko irakaskuntzaren hedapenari laguntzea, bai eta euskal ondarea eta kulturaren eza gutza bultzatzea eskolatan. Zentzu horretan, materialak eta dokumentu berriak sortzeaz eta hedatzeaz gain, mota guztietako dokumentalak kontsultatzeko edo mailegatzeko zerbitzua eskaintzen du Uztaritzeko Lota jauregian duen egoitzan. Gaur egun

euskarazko 8.000 liburu, bideokasete, CD eta CD-ROM biltzen dira bertan irakasleentzat eta ikasleentzat. Dokumentazio zerbitzua edo nork balia dezake lekuan bertan kontsultatzeko.

Pedagogia saileko animazioa eta ikerkuntza landuz, Idazleak ikastetxeetan

programa, ipuin multimediak sortzeko lehiaketa eta abar ere martxan dituzte.

Horrez gain, IKASen web guneak (<http://ikas.org>) ere aukera ugari eskaintzen ditu; besteak beste, ikasmaterial elektronikoa jaisteko.

Material guztia lantzen eta ikuskatzen duen talde pedagogiko eta zientifiko bat dago, Hezkuntza Saileko ikuskariz eta euskaltzainez osatua.

Mixel Jorajuria IKASeko egungo lehendakariak honela definitzen du IKAS: "Ipar Euskal Herriko haurrak go-goan dituen elkarte bat da. Euskal kultura eta euskara hemengo haur guztien altxorra da, hartzen duten ontasuna. Aberastasun horien bereganatzeko, tresnak behar dituzte arlo guztietan (matematika, zientzia...), euskarri guztietan (liburu, CD-ROM, web gune...), programa ofizialei jarraikiz, sorkuntzan edo itzulpenetan oinarriturik, hemengo euskalkiak zainduz lehen mailan bederen. Irakasleak behar gorritan dira. IKAS hornitzaile aproposa da, elkarlanerako gune bat".

Gaur egun Ama Eskolatik Lizeoraino euskarazko irakaskuntzak 9.000 ikasle eta 250 irakasle inguru biltzen ditu, AEKkoak kontatu gabe. IKASek horiek guztiak, sare guztietakoak, hornitzen ditu: eskola publikoa, eskola giritinoak, Seaska eta AEK.

1995eko hitzarmenaren arabera, IKAS Akitaniako Centre régional de documentation pédagogique erakundearen partaide da eta horren baitan Baionako CDDPko adarra osatzen du. Hainbat material zentro horrekin lankidetzan hedatzen ditu.

Orain dela 43 urte sortutako IKASek bizirik eta indartsu jarraitzen du, denboraren karian jasandako aldaketak aldaketa, proiektu eta asmo berriei ekin ez eta hasierako helburuei eutsiz. •

Bibliografia

- ZERBAITEN ARTEAN: "Journées Pédagogiques pour l'enseignement du basque" in Gure herria, (1959ko buruila), Ustaritz.

-ZENBAITEN ARTEAN: IKASek 40 urte, ikas, Ustaritz, 2001.





sei liburu

bakoitzak bere xarma du



Golasen Altxorra



DA GOENNEKO SAIGAI

hh
hik hasi